

Arrasatear gutxi 'Belaunaldi Gaztea' argazki lehiaketan

# ARRASATE <sup>PRESS</sup>

1992ko urriak 16

166. zenb.


Antzinakoak  
Garagartzako  
arte zaharra

# Everest, 50 erantzunetan

Zaldibarreko  
FUTBITO  
TXAPELKETA

## Mendietxebarri

**E**rretratuen agertzen dan Mendietxebarri Letonak eskribiru ebenez 1972xen bota zan. Bertakuen ustez zeozer lenau izango zan ze 1969ko udazkenien oingo barrixe akabau eta 1970eko udabarrixen bertan bizi zien. Erretratuko hau etxe ederra zan, Mundrauetik Aramaixorako bidekontran, kilometruek marketan dituen harrixen onduen jasotakue. Balkoi ederrak euken eta bentanetako markuek eta, azul pinttaute.



Mende honen hasieran jasotakue, aurretik euen etxe zarra bota ondorien. Soloz inguratute, ur ugeri euken eta horretxeatik frutarbolen-

dako lur onak. Vittorixara faten zien tratuen, Gatzaginetik astuen, mallukixek eta berdurak erueten. Mallu-

kixek ugeri eitten zien, honeik leku epelak dielako eta lur harrue dauelako bertan.

## **BULARREKO PATOLOGI UNITATEA**

### **Mamografia**

**Gune susmagarriak aurkitzea.**

**Gune susmagarren ikuspegi zabalagoak.**

**Bularreko ekografiak.**

**Bularreko tumoreen zitologia.**

**Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.**

# **GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA**



**DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.**

**Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18**

# MUSAKOLA OSTATUA

**Taberna  
Jatetxea  
Bazkariak  
Bodak  
Banketeak  
Gelak**

Gipuzkoako Etorbidea z/g  
Tfnoa: 79 20 50  
ARRASATE

## • Txitxinpe •

**Berezitasunak:**  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak


Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

## LORATEGI taberna

Iturriotz, 7  
Tfnoa: 79 04 67  
ARRASATE

# Memesa

79 42 22



Aldizkari honek  
Eusko Jauriaritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du

# Pozik bai baina...

**A**zkenengo aste honetan euskal mendizaletasunak berri on ugari jaso ditu, urte askotan posible izan ez dena zazpi euskal mendizalek oso epe laburrean lortu bait dute: munduko gailurra.

Merito handia deritzok eta hori ez dago ukatzerik baina egia esanda, eta nik ez nuke une historiko hau garraztu nahi, ez dakit inori baimenik emango niokeen horrelakorik egiteko ahalmen hori banu.

Ez dezala inork txarrera hartu, baina zori-txarrez ez ditut sekula santan ahaztuko behin telebistan ikusitako irudiak. Erreportaia euskal mendizaletasunari buruzkoa zen eta halako batean han non agertzen diren Himalayako kanpamendu batzuen irudiak.

Lur jota utzi ninduen zikinkeria hura ikus-teak, benetan triste eta lotsaturik sentitu nintzen.

Izan ere, gizakiok horrelakoak gara, aztarna "copyright"-a agerian utzi behar beti.

Berdin da mendizalea, ekologista... izatea, ez dakigu, ez dugu ikasi natura errespetatzen. Denon ahotan egoten da maiz "dominguero" hitza, besteetaz hitzegiten dugunean noski, baina nahiz eta gure buruak mendizale edo ekologistatzat jo, ahoa bete hortz geldituko ginateke norberaren "moviola"ren aurrean jarriak izango bagina.

Samurra deritzot filosofatzeari edota txapa paparrean eramateari, kontuak bestelakoak dira, ordea, eta urtero gure mendietan jasotzen diren zabor kopuruek argi eta garbi adierazten digute zikin handi batzuek garelara.

**IHINTZA**



ARTIKILU

### • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxes: 77 09 40  
**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzasu Loidi. **Kazetariak:** Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. **Publizitateak:** Kepa Oñden (77 06 90). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kofi, Daniel Gokolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS  
paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkia:** Jabier

  
**AMETS  
TAILERRAK**

HERGO karabanen  
banatzailea

**ZUEN KARABANAK  
ATERPEAN GORDETZEN DITUGU**



Berezano auzoa. OÑATI  
Tfnoa: 78 25 92 / 78 19 50

**I  
R  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
A**

**Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 71 80**



**Alkoholarekin arazoak  
dauzkazu?**

**Agian,  
"Alkoholiko  
Anonimoek" lagundu  
ahal dizute!!**

**Alkoholiko  
Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa  
(Gipuzkoa)  
Tfnoa: 61 93 38

•••••  
**Arrasateko  
Gaztetxeok**

**E**satzen dutenez, gaurko Gaztetxeak ez ditu behar diren neurriak betetzen. Eta guk zera galdetzen dugu: noiz topatuko duten arazo honen irtenbidea; hainbeste aldiz aipatutako Gaztetxe "egoki" hori (Badira 7 edo 8 urte, orduko gazteak eskatzen hasi zirela, eta dagoeneko ez dira hain gazteak).

Guk, ordea, politikarien betiko promesak alde batera utzita, gure proiektua aurrera atera genuen, batere laguntzarik gabe. Jadanik, urte t' erdi daramagu ospitale zaharreko lokal horretan. Jakin dezakezue, lokal horrek ez zeukan erabilpenik (arratoi, armaia eta yonkie-ren batek, besterik ez zuten erabiltzen), eta orain berriz, gazteentzat irtenbide bat da. Edozein gazteren esku dago nahi duen aktibitatea aurrera eramatea, baita antolatuta daudenetan parte hartzea ere: festibalak, ikastaroak, afari-festak, mendi-irteera, txapelketa, autobus antolatuak, hitzaldiak, diapositiba-emanaldiak, erakusketa, eta egingo ditugunak.

Bestalde, ondoko bizilagunekin arazo batzuk daukagu, eta zaratarena da garrantzitsuenak. Guk, geure errua onartzen dugu, baina horrenzat irtenbide bat topatzea posible ikusten dugu. Hala ere, guk lokala insonorizatzea nahiko genuke, baina ez zaigu posible, ez daukagu dirurik eta. Udaletxeari hau, gutxienez birritan eskatu diogu, baina beraien erantzuna beti ezezkoa izan da.

Momentuz, eta lehen aipa-

tutako Gaztetxe proiektu horri forma ematen dioten bitartean (ikusirik egin behar), eurek ezarri dizkiguten arauetatik, bat ezik beste guztiak onartzen ditugu: hau da, kontzerturik ez egitearena. Eta, irtenbide bezala haxe proposatzen dugu: kontzertuak, gaueko 12etarako bukatuta egotea.

**AGAKO (Arrasateko  
Gazte Alternatiboan  
Kofradia Organizatua)**

•••••  
**AEDko norbaiti  
zuzendua**

**H**au argitaratu orduko, pasatuta egongo da Monterroneko bilera "ospetsu" hori, eta horri buruzko arazo batzuei buruz hitzegitera noa. Hasteko, gauza bat puntualizatu nahi dut. Ni ez naiz Gaztetxe ordezkaririk bakarrik eta ezta nagusia ere, bai ordea, telebista aurrean agertzeko beldurra kendu duenatariko bat. Hau azaltzearen arrazoia haxe da: AEDkoek nire parte hartzea (hitzaldi-debate) bere kasa konfirmatu zuten, nik ziurtatu gabe. Egia esan, beste bat da joateko prest dagoena/zegoena. Baina hala ere, nire argazkiak agertu dira (jadanik, telefonoa pintxatuta daukat). Beraz, AEDko norbaitek/norbaitzuk, kasu honetan burututakoari nire kritika ezartzen diot, baita hitzaldi-debate hau gurekin (Gaztetxearekin) hitzegin baino lehenago anunziatzen hasi zirelako ere. Bilera horrek, Gaztetxearen arazoak konponduko al ditu? Ez dut uste.

**Iker Barandiaran**

**Edozein keja, komentario, burutazio duzula? Idatziguzu gutuna eta gusto handiz argitaratuko dugu. Ez idatzi 20 lerrotik gora eta eman zure izena, N.A. eta telefonoa harremanetarako.**

**Onduline TXOMIN HERIZ**

 eraikuntzarako materialak


Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18  
**ARRASATE**

**beatriz**

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 3  
**ARRASATE**

# Zein irtenbide emango zenioke Gaztetxeari?



**Danel Goikolea**  
**'Egin'eko kazetaria**  
**(23 urte)**

Nire ustez auzo bakoitzean gaztetxe bat jarri beharko litzateke. Ordua da Gaztetxe arazoa konpontzeko, orain dagoena edo beste bat, baina konpondu.



**Maitane Mate**  
**Ingeleseko irakaslea**  
**(24 urte)**

Mantendu egingo nuke baldintzak hobetuz. Udalak lagundu egin beharko luke, zeinek ba? Esango dute beti kalean gabiltzala baina laguntzarik ez badugu...



**Jose Ignacio Muñoz**  
**Saioako langilea**  
**(25 urte)**

Kultur ekintza gehiago antolatu behar lirateke: antzerkiak, erakusketak... Beste herri batzuetako esperientzia ezagutzen dut eta era desberdinean antolatzen da.



**Asun Lopez**  
**Etxekoandrea (30 urte)**

Ez dut ezagutzen Gaztetxe giroa, baina entzun dudanez kexak egon dira, eta aldemeneko bizilagunak errespetatzea ezinbestekoa da, orduak errespetatuz. Betetzen badute, ondo dago.



**Amaia Borrás**  
**Ekonomiako ikaslea**  
**(18 urte)**

Lokala insonorizatu egingo nuke eta bertan ekintza gehiago antolatu.



**Aitor Alkorta**  
**Humanitateko ikaslea**  
**(16 urte)**

Dirulaguntza gehiago eman eta ordutegia luzatu egingo nuke. Egin dituzten obrekin, gainera, asko hobetu da, orain oso ondo dago.



**Esti Berezibar**  
**Itsas zientzietako ikaslea (18 urte)**

Beste gazte batzuegana zabaldu. Beti jende bera sartzen da eta oso selektiboa da.



**Luis Mari Urzelai**  
**Autonomoa (58 urte)**

Gure adinekook nola erantzungo dugu hori ba? Ondo portatzen badira, ondo dago. Beste taberna batzutan betetzen diren baldintzak bete beharko litzukete.

**OSORIK  
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE

**ARAMAIO  
okindegia**

Maisu Guridi, 3  
Tfnoa: 79 36 46

**K**abia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea, 28  
ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. .... 79 53 00  
 Iguatorialdea ..... 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) ..... 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua ..... 79 90 11

**Gurutzegoria**  
 Bergara ..... 76 55 76

**DYA**  
 Antzuola ..... 76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) ..... 79 13 57  
 (Txanda hartzeko) ..... 77 03 46  
 ..... 77 07 21  
 Oñati ..... 78 08 52  
 Eskoriatza ..... 79 98 58  
 Aretxabaleta ..... 79 74 58  
 Aramaio ..... (945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulanziaz ..... 45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati ..... 78 04 11  
 Bergara ..... 76 14 69  
 Arrasate ..... 79 14 39  
 Aretxabaleta ..... 79 10 52  
 Eskoriatza ..... 79 03 22

**Ertzaintza**  
 Arrasate ..... 79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea ..... 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile  
 burua ..... 79 20 72  
 Zubilagako Eskualde-Parkea ..... 78 28 00

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) ..... 79 09 00  
 Elektrizitatea (Iberduero) ..... 79 05 81  
 Gasa ..... 900 40 05 23  
 ..... 79 78 44  
 ..... 79 76 78

**Garaioak**  
 Taxiak ..... 79 12 22  
 P.E.S.A. .... 79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza ..... 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza ..... 79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**  
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta  
 Erabiltzaileen Elkarteak ..... 79 87 77  
 KIUB-OMIC ..... 79 51 55

**Monterrongo liburategia**  
 Monterron ..... 77 01 05

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 16**  
 Egunez: Aurora Ruiz, Magdalena  
 Gaez: Camacho, Oxirondo.

**Larunbata 17**  
 Egunez: A.M. Morales, San Andres,  
 Gaez: Puy, Barrenkale.

**Igandea 18**  
 Egunez: Alberto Azkoaga, Ferrerías,  
 Gaez: Puy, Barrenkale.

**Astelehena 19**  
 Egunez: S. Español, Iturrioz,  
 Gaez: Guallar, San Antonio.

**Asteartea 20**  
 Egunez: M. Corcuera, Musakola,  
 Gaez: Estella, Matxiategi.

**Asteazkena 21**  
 Egunez: J. A. Irizar, Erguin,  
 Gaez: Mozos, Pedro Deunarena.

**Osteguna 22**  
 Egunez: Amezua, Santa Marina,  
 Gaez: Camacho, Oxirondo.

**16 OSTIRALA**

**ZINEA**  
 "Un horizonte muy lejano"  
 (7, 9.30)

**KONTZERTUA**  
 Gaueko 10etan Chilli Confetti,  
 Die Tester's eta Hirn taldeen  
 kontzertua. Musakolako Poli-  
 kiroldegian. 500 PTA. Gazte-  
 txek antolatuta.

**ANTZERKIA**  
 "La tierra Higienica" antzerkia.  
 Gaueko 10etan Elorrioko  
 Arriola Kultur Aretoan.

**DANTZA IKASTAROA**  
 Euskal Dantza ikastaroaren ha-  
 siera. Lore Gazteak taldeak  
 antolatuta. Abenduaren 18an  
 bukatuko da. Plaza mugatuak.

**ASTE INTERNAZIONALISTA**

Arrasateko Komite Internazionalistak Aste Internazionalista antolatu du. Datorren astelehenean hasiko da hitzaldi sortarekin, asteartean Hasan, gazte argeliarra izango da eta asteazkenean Antonio Duplá historia irakaslea. Bestalde, datorren larunbatean Ekekei taldeak "Ni naiz Kapitan Piloto" obra antzertuko du. Gaueko 10etan Herriko Plazan. Horrez gain, "America 500 urte" erakusketa zabalik egongo da 19tik datorren 25era bitartean. "V. Mendueurrena. 500 urte erresistitzen" lelopean atera dute kartela.

**17 LARUNBATA**

**ZINEA**  
 "Un horizonte muy lejano"  
 (7, 9.30)

**RUGBYA**  
 Arrasate - Hernani Atxabalpen,  
 4etatik aurrera.

**18 IGANDEA**

**ZINEA**  
 "Un horizonte muy lejano"  
 (7, 9.30)

**MANIFESTAZIORAKO AUTOBUSA**  
 Bilboko "Autodeterminazioaz-  
 Burujabetasuna" manifesta-  
 ziora autobusak. Goizeko  
 11etan Arbolapetatik. Irati eta  
 Bionan izenematea.

**HAURREN EGUNA**  
 Aretxabaletan haurren eguna.  
 Loramendi Dantza Taldeak  
 antolatuta.

**ZIKLOTURISTEN IRTEERA**  
 Aretxabaleta-Agurain-Aretxaba-  
 leta-Arlaban-Ozaeta-Here-  
 dia-Agurain-Aretxabaleta. 60  
 kilometro.

**MENDI IRTEERA**  
 Anbotora irteera. 9etan Aretxa-  
 baletako Partenoitik. Murrux-  
 kio mendizale elkarteak anto-  
 latuta.

**"AUTODETERMINIZAZIOAZ- BURUJABETASUNA" MANIFESTAZIOA**

Datorren igandean Bilbon burutuko den "Autodeterminazioaz-  
 Burujabetasuna" mani-  
 festaziorako autobusak  
 antolatu dira. Goizeko  
 11etan irtengo dira  
 Arbolapetatik eta  
 izenak emateko Irati  
 eta Bionatik pasa  
 zaitezkete. Itzulera-  
 rako bi aukera desber-  
 din egongo dira: bata  
 Manifestazioa bukatu  
 ondoren eta bestea  
 Athletik-Real partidua  
 bukatu ondoren.



**19 ASTELEHENA****ZINEA**

"Un horizonte muy lejano"  
(7, 9.30)

**ERAKUSKETA**

"Amerika 500 urte" erakusketa-  
ren inaugurazioa. 25era bi-  
tartean. Monterronen.

**20 ASTEARTEA****ZINEA**

"Un horizonte muy lejano"  
(7, 9.30)

**HITZALDIA**

"Arrazakeria orain eta hemen".  
Hasan, argeliarra, "SOS  
Arrazakeria" taldekoa, ema-  
lea izango da. 7etan Monte-  
rronen. Komite Internaziona-  
listak antolatuta.

**GARAPEN PERTSONALA  
IKASTAROA**

Garapen pertsonala ikastaroaren  
hasiera. 4etan Famili eta Gi-  
zarte Heziketarako Zentruan.

**21 ASTEAZKENA****HITZALDIA**


"Presencia vasca en America.  
1492-1992". Antonio Duplák,  
EHUko historia irakasleak  
emana. 7etan Monterronen.  
Komite Internazionalistak  
antolatuta.

**22 OSTEGUNA****PROGRAMA BEREZIA  
ATBn**

Datorren astean ATBko  
ekipoak programa berezia  
prestatuko du, Ifurrategita-  
ren espedizioari buruz.  
Programa astebukaeran  
grabatuko da eta asteko  
beste bi egunetan emitituko  
da. Bertan espedizioa hiru  
partaideak egongo dira eta  
bidaian izan dituzten  
gorabeherak azalduko dira.  
Esperientzia berri honen  
inguruko zehaztasun  
gehiago jakin nahi baldin  
baduzue, ez ahaztu hemen  
duzuela aukera.

**TAILA IKASTAROA**

**Uriburu kaleko taile-  
rrean taila ikastaroa  
burutuko da datorren  
urriaren 24tik abendu-  
rarte. 30 ordutako  
ikastaroa izango da eta  
asteen lau ordutakoa,**



**Iarunbatean. Goi mai-  
lako ikastaroa izango  
da eta parte hartzaile  
kopurua mugatua.  
Argibide gehiago edo  
izena emateko telefono  
hauetara deitu: 79 40  
79 edo 79 21 05.**

**GARAPEN PERTSONALARI BURUZKO IKASTAROA**

Datorren asteartean Garapen  
pertsonaleko ikastaroa hasiko  
da Famili eta Gizarte Heziketa-  
rako Zentruan. Emakume talde  
batek bertan izango dituzten  
esperientzien bidez garapen  
pertsonala lortzea da helburu  
nagusiena. Hiru trimestretan

banatuko da ikastaroa eta Mari  
Karmen Zubillaga psikologoa  
izango da irakasle. Matrikulazio  
epea zabalik dago eta plazak  
mugatuak direnez, lehenbait  
lehen pasatu bertatik. Informa-  
zio gehiago lortzeko 79 04 59  
telefonora deitu.

**BI ERAKUSKETA  
IKUSGAI**

Harresi aretoan eta Monte-  
rronen bi erakusketa daude  
ikusgai. Alde batetik Harresi  
Aretoan Angel Galipienzo-  
ren omenez, bere kuadroek-  
in antolatutako erakusketa  
izango da arazoaren 8a bi-  
tartean. Eta bestalde, Monte-  
rronen Belaunaldi Gaztea  
argazki lehiaketarako aur-  
keztutako lanen erakusketa  
izango da urriaren 18a bi-  
tartean.



“Everesterako espedizioa pentsatu zutenean, euren proiektuaren filosofia ederki adierazten zuten *leit motiv* anglosajoi bat aurkitu zuten Iñurrategitarrek: *by fair means*; alegia dagoeneko ez dela aski edozein preziotan, edozein modutan baina igotzea, iristea. Hau joku bat da, baina baita zintzotasunez eta bat ere laguntza artifizialik gabe burutu beharreko erronka ere. (...)

Hori dela eta, espedizioak arina, merkea eta oxigenorik gabea izan behar zuten. Sekula ez da zer bitarteko gutxiagorekin eta hain epe motzean egin. Bat ere esageratu gabe, espedizio astun baten pertsonal, ekipo eta aurrekontuaren hamarren bat baino ez dute mobilizatu.

Beharbada horregatik gertatu zen hain zaila behar zen dirua lortzea. Uste dut orduan susmatu genuela Iñurrategitarrek igo egingo zutela. Halako galtzaile duhin izateko bokazia dun herri batek erratuta egon behar zuten hain gauza eder eta eraginkorraren aurrean. (...)

Profesionalizatzearen aurka orain arte izan duten jarrera ez da dagoeneko bateragarria uda bakoitzean erronka berri eta zailago bat bilatzeko irrikarekin. Baina, badago Everesta oxigenorik gabe egitea baino gauza zailagorik? Seguru asko, aurkituko dute”.

**Antton Perez de Calleja.** 92-10-8.

**EL MUNDO**  
PAIS VASCO

“Gipuzkoako gizartearen hauteskunde aurreko egoeraren errebasua zehatz eta mehatz egin nahi izanez gero, ezin da alderdi maioritaria ahaztu: abstentzioa, azkenean gutxiengodun alderdien emaitzetan aginduko duena izango da eta”.

**Mariano Alvarez** arrasatearra. 92-11-7.

**EL DIARIO VASCO**

## Zeintzuk dira Maastricht-en aurka egoteko arrazoiak?


**M**aastricht-en erabaki dena, merkatarien Europa eraikitzeke lehen pausua da, krisia gainditzeko montatu den kapitalismo europearrean oinarritutako Europa liberala, langileek ordaindu beharko dutena.

Europa liberal horretan merkaturatu gauza guztien gainetik izango da eta Estatuak merkaturaren menpe egongo dira, XIX. mendeko kapitalismo basatiaren garaian bezala. Maastricht-en ondorioz, giza-baloreak galdu egingo dira eta konpetitibatea nagusitu.

Orain arte, Europa eraikitzeke proiektua ez du inork dudan jarri, baina daniarrek ezezkua eman zutenetik gauzak aldatu egin dira, proiektu horrek herriei sakrifizio handiak eskatuko dizkie eta. Erreferendumetan, teknikoeak, funtzionarioek eta enpresariak baiezkoa eman dute, langile eta nekazariak, berriz, ezezkua; klaseen Europa, desagertuta zegoela zirudienean.

Herri txikiek ez dute etorkizunik Europan, nazioen gainetik erakundea sortu nahi da eta. Ekonomi Elkartea, 25-30 nazionalitatez osatutako Europa eraikitzekeotan dagoela pentsatzea huts galanta da, Euskadik hor ez du zereginik.

Legalitate aldetik Maastrichtek ez du etorkizunik, Erromako Itunaren arabera, horrelako proiektuak aurrera eramanez ahal izateko baiezko bapatekoa izan behar dute, eta dagoeneko daniarrek ezetza eman diote. Gainera, ez luke legitimitaterik izango, europearren erdia beste erdiaren aurka jarriko bait luke, Frantzia moduan. Zutirik dagoen hilotza da.



**Jesus Albarracín**  
Ekonomilaria.



# LASAGABASTER

**ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.**

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



**Azkenean biak agertu ziren**

Joan den asteko ARRASATE PRESSEN, bakarrik Mari Trini Fernandez agertu zela bagenion ere, Eva Rico bere laguna berarekin zen. Dirudienez, dantzatokiren batean ezagutu zituen norbaitek eta poliziari abisua eman. Gurasoen zorionerako, biak etxean daude orain.



KARMELO

**Asteartea eta hamahiru**

Pasa den asteartea gehienontzat astelehen izan bazen ere, benetako asteartea zen eta gainera hilaren hamahirugarren eguna. Superstizioetan sinesten dutenentzat etxean gelditze-ko aukera paregabea.

**Angel Galipienzoren erakusketaren inauguraketa**

Hunkigarriz jo daiteke Angel Galipienzoren oroimenez, Arrasateko bere lagunek Harresi Aretoan prestatutako erakusketaren inaugurazioa. Inaugurazio ekitaldian, iaz hildako pintorearen senitarteko eta lagun ugari bildu zen, Madrilen bizi zen nappar gazteak egindako lanez osatutako erakusketaren inguruan. Erakusketa azaroaren 8ra arte izango da zabalik, asteburuetan goizeko 12etatik 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara ikusgai, astean zehar, berriz, arratsaldeko ordutegian.

**Udalaitz Eguna laino artean**

Urtero bezala, pasa den astelehenean mendizale ugariaren topaleku izan zen Udalaitz mendiko tontorra, nahiz eta aurtengoan behelainoa jaun eta jabe izan. Ohiturari jarraituz, Udalaitzera igo zutenek, urtean zehar mendian bizia galdutakoan aldeko meza entzuteko aukera izan zuten; baita, meza bukatu eta gero, Udalaitzen himnoa kantatzekoa ere. Gailurreko ekintzak bukatu ondoren, ohienez, bertan bildutakoak Udala auzora jaitsi ziren, hango tabernetan tragoska batekin batera mokautxo bat egiteko.

**Azoka Plaza berriz zabalik**

Abuztuan eta irailean eraberritze lanak egin eta gero, joan den ostiraletik, berriz ere zabalik dago Azoka Plaza. Momentuz 27 saltzaile anbulantek bete dituzte postu berriak, 400.000 PTA ordaindu eta gero, eta beste 4 oraindik betetzear daude; salmenta-postu finakoak, bestalde 66 dira eta baserriko gaiak saltzeko prestatu direnak, 32. Eraberritze lanekin, argindar elektrikoa berritu, suteen aurkako sistema jarri eta postu bakoitzera ura eramateko hodiak jarri dira.

**Arrasatearrak Bianako Nafarroa Oinez-en**

Auskalo kotxe partikularretan zenbat joan ete ziren Biana aldera, baina AEDk antolatutako autobusetan, ia 550 lagun izan ziren Bianara abiatutakoak. Beti bezala, zailtasunak antolatzailentzat autobusak azken orduan alokatu behar izaterakoan.

**Ongietorri beroa Everest-eko espedizionalariei**

Eguraldiak ez zuen lagundu, baina atxabaltar eta eskoriatzarrek ez zuten hutsik egin eta Jose Ramon

Zubizarreta, eta Felix eta Alberto Iñurrategi, bailarara iritsi zirenerako, prest zeuden ongietorri beroa emateko. Aurrez, asko joan ziren Sondikako aireportura ere. Herritarren errekonozimenduaz gain, omenaldigisa lora sorta bana jaso eta ohorezko aureskua eskaini zitzaion, festa-giroa nagusi Aretxabaleta eta Eskoriatzian pasa den larunbatean.

**Belaunaldi Gazteak Argazki Lehiaketa**

Joan den ostiralean Gazte Zerbitzuak antolatutako argazki-lehiaketaren sari-banaketa egin zen Monterronen. 32 partaideren artean, irabazlea Fermin Etxeberria zarauztarra izan zen.

<b>-JAIOTZAK</b>
• Irati Aranegi Berezibar. Urriaren 7an.
<b>HILDAKOAK</b>
• Pilar Amparan Amparan. Urriaren 7an. 66 urte. • Daniela Monje Garcia, 11n. 88 urte. • Gregoria Narbaiza Loidi, 11n. 86 urte. • Esperanza Citores Redondo, 12an. 63 urte.
<b>EZKONTZAK</b>
• Simon Martinez Martin & Ana Maria Sancho Luque. Urriaren 10ean. Zibilez. • J. Carlos Romero Rodriguez & M <sup>a</sup> Aranzazu Llopis Aperribai, 10ean. Zibilez. • Miguel Angel Puente Garcia & Rosa M <sup>a</sup> Agiriano Losada, 10ean. Zibilez.

# TXOKO

## TABERNA


*Eure berezitasunak pintxo eta mokatu gozoak*

Otalora Lizentziatua z/g Tfnoa: 79 20 10



## ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88  
ARRASATE



KOLDO AZKOITIA\*

## Gaikuntza okupazionalaren transferentzia

**Aurreko** asteetan berriz azaldu zaigu komunikabideetan, Estatuko Gobernuak Eusko Jaurlaritzari emateko dauzkan transferentzien gaia.

Konkretuki sei transferentziak osatzen duten multzoa gauzatzeko negoziaketak nahiko aurreratuak omen daude. Horien artean garestienak, Gaikuntza Okupazionalarenak, hainbat arazo planteatzen ditu.

Transferentzia hau, orain arte egin direnak bezala, kupoaren jeitsiera baten bitartez finantziatzea proposatzen du Eusko Jaurlaritzak.

Madrilgo gobernuak aldiz, Katalunian eta beste komunitate batzutan, transferentzia eman den kondizioetan aplikatzea proposatzen du, Estatuko Gobernuak, gai honetarako, urteroko aurrekontutik komunitate ezber-

dinei dagozkien ehunekoak luzatuz. Beraz diru sarrerak Gobernu Zentralak kontrolatuko litzuzke eta gastuen gestioa (urtero Madrilatik zehaztua) Eusko Jaurlaritzak.

Horretarako arrazoi ezberdinak daudela argudiatzen du Estatuko Gobernuak: Batetik, urtero egin behar diren ekintza formatiboak, estatu mailako plangintza bat jarraituz bideratzen direla. Bestetik, egiten diren ekintza asko Europako Komunitateak laguntzen dituela.

Jaurlaritzak, konpeten-

.....  
**“Gaikuntza okupazionalak hurbileko planifikazioa eta gestioa behar ditu”.**

tziarik ez izan arren, hainbat programa ditu gaikuntza okupazionalerako eta horiei esker osatzen dugu eskualde mailako eskeintza.

Bestalde, ez dirudi gaikuntza okupazionalerako ekintzak estatu mailako plangintza bati lotu behar zaizkionek. Kontutan hartu behar dugu «enplegu arroa» edo «cuenca de empleo» delakoa, gaikuntza planifikatzeko esparru egokiena dena, beren barnean ematen bait dira erlazio ekonomiko garrantzitsuenak. Guzti hau ekonomiaren internazionalizazioak eskatzen duen ikuspegia ahaztu gabe. Emaitzak egokienak izan daitezten, hurbileko planifikazioa eta gestioa behar dituela dirudi.

Deba Garaiko esperientzia azken urte hauetan positiboa izan bada, duplizitateen gainetik, Institutio ezberdinen (Eusko Jaurlaritza, Inem, Udalak) egitarauak eta dirulaguntzak koordinatuz, eskeintza zabala eta lan merkatura egokitua egiteko, aukera eta sensibilitatea egon delako izan da.

Horrelako garrantzia duen gaian, baliapideak ahal den ondoen erabili behar ditugu, pragmatismoz, merkatuak eskatzen dituen kualifikazioak emateko eta egitura ekonomikoa dibertsifikatzeko, konpetentziak argitu eta, enplegu arroaren mailan, egitarauen koordinazioan sakontzea beharrezkoa da; helburua enplegua da eta gizarteak behar du.

(\*) ENPLEGU ETA

GAIKUNTZAKO TEKNIKARIA

## USTEAK USTE

### AMAIA ANTZOKIA

**Tamalez eta zorionez Amaia Antzokia egokitze-ko obrak geratu egin dira. Tamalez diot, eten honek probokatu ez arren, antzokiko ateak datorren urteko martxo edo apirilerarte ez direlako zabalduko. Zorionekoa, ostera, obraren ezohizko garapen honetan geldituen bat sortzea, bere egunean onartutako eutsiezinezko proiektua oinarri hartuz egin diren aldaketek obra zertan eta zenbaten amaituko ote zen jakiteko eragozpenak sortzen bait zituen, etenak obraren berplanteamendua ekarriko duelarik. Susmoa daukat horrelakoak administrazio publikoan bakarrik ez ote diren gertatuko.**

**Lerro hauetaz baliatuko naiz Gipuzkoan izango den antzoki sareko azpiegiturarik onenetakoa izango den Amaiarako proiektu osoa aldarrikatzeko, izan ere, penagarria izango litzateke eta, hankamotz geratuko balitz. Obretan sartu ezker ez ote da lojikoagoa, behingoz, antzokia ahal den egoera onenean uztea, aurrera begira “partxeatzen” ibili beharrean baino. Erabakiak gorabehera, Amaia Antzoki berrituak eskain dezakeen egitaraua herriaren kultur iharduera aberastu eta arrasatearron gozamenerako izan dadila.**

JON GARAI

# Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 TARRASATE fnoa: 79 14 99

## URONDO elektrizitatea

- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak



Kataide Industrialdea 5. Pabiloia,  
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76 ARRASATE

# Aita Mennin zerbitzu berria buruko kolpeentzat

Aita Menni Hospital Psikiatrikoko Eguneko Ospitalaren Zerbitzua martxan jarri zenetik, urtebete bete da aste honetan. Denbora honetan, Eguneko Ospitalaren zerbitzuez 35 pertsona baliatu dira, batez ere gazte psikotikoak, eskizofrenikoak gehienbat.

Gogora daitekeenez Eguneko Ospitalaren Zerbitzua ambulategietan eskain daitekeena baino zabalagoa eta era berean ingresatuta egon behar ez duten gaixoei eskaintzen zaie.

## Eguneroko martxa

Aurrez aipatutako 35 pertsona horiek, ia hutsik egin gabe, egunero egunero hurbildu dira Eguneko Ospitalera eta denbora horretan bi bakarrik izan dira, une jakin batean eta une jakin baterako, ingresatu behar izan direnak.

Eguneko Ospitalaren iharduera goizeko 8etan hasten da, gaixoak 9.30etarako joaten badira ere. Goiza, gizartebetasunak lantzeko taldeetan, stress-aren manejoaz arduratzen direnetan, talde-dinamikako taldeetan edo kultur giroko ekintzak burutuz igarotzen dute gaixoek. Arratsaldean, berriz, behar handiena duten gaixoak geratzen dira bakarrik, antze-



40 terapeuta inguru bildu ziren Eguneko Ospitalaren urtemugan.

rako ekintzak burutuz.

Gaixoei laguntzeko, Eguneko Ospitalean, bi sendagilek, hiru psikologok, gizarte laguntzaile batek, monitore batek eta animatzaile soziokultural batek egiten dute lan.

Hasieran, Eguneko Ospitala zela eta, Uribe Auzoko biztanleek eragozpenen bat jarri zuten, baina urtebeteko ihardueraren ondoren ez dago arazorik zerbitzuaren eta auzokideen artean.

## "Burmuineko lesioak" zerbitzu berria

Orain urtebete Eguneko

Ospitala nobedade izan zen moduan, Aita Mennik hementik aurrera "Burmuineko lesioak" izeneko zerbitzua jarriko du martxan, Estatuan irekiko den lehenengoa. Zerbitzu honetan, buruan hartutako kolpeen ondorioz, bizitza normala egiteko zailtasunak dituzten pertsonen erantzutea nahi izan da, "izurrite ixila"-z ezagutzen den gaixotasuna dela eta. Orain arte, horrelako kasuek atzerrira irteeta beste erremediorik ez zuten, hortik orain hau sortzea. Zerbitzu berria eskaintzeko, Aita Mennik 15 ohe jarri ditu eta sendagile

batek, psikologo batek, lodopega batek, fisioterapeuta batek, eta erizainez osatutako osasun-talde berria antolatu.

## Terapeuten bilkura

Eguneko Ospitalaren urtemugarekin batera eta "Burmuineko lesioak" zerbitzu berriaren aurkezpenarekin, Euskal Herriko Eguneko Ospitala guztietako ordezkariak bildu ziren Uribe Auzoko Aita Menniko aretoan hiruhilabetero behin egiten duten moduan. 40en bat lagun bildu ziren, horrelako zerbitzuetan bizi diren egoerei buruz hitz egiteko.

**MENDI** taberna  
Mendi da zure etxea

Maalako Errabala, 4 Tfnoa: 79 20 54 ARRASATE

**HIES EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



Aukeratutako proiektuen artean, komunikazio audiobisualen enpresa bat eratzea dago.

## Sei hilabetetan lau proiektu "Arrisku-soldata" programan

"Arrisku-Soldata" programara aurkeztutako hamar proiektuen artean, Udalak Saiolanen laguntzarekin, lau aukeratu ditu: Maria Antonia Rodriguezek aurkeztutako hortz laborategiarena, Roberto Vazquez eta Josu Galdosek komunikazio audiobisualen enpresa bati buruz aurkeztutakoa, Karlos Ojangurenak aurkeztu duen bitxitegi fabrikazioari buruzkoa, eta Inma Quinterok delineazio zerbitzuak eskainiko lituzkeen enpresarena.

Aipatutako bost pertsonak, dei hilabeteko epea izango dute aurkeztutako proiektuak behar bezala garatzeko eta denbora horretan

Udalak, INEMek eta Diputazioak ordaindutako soldata kobratuko dute. Proiektuak behar bezala ikertzeko duten denboran, bost lagunek enpresa-gestioari buruzko ikastaro orokorrak izango dituzte, antolakuntza, administrazioa eta komertzializazioaz batez ere. Ikastaro orokorraz gain, proiektu bakoitzak behar duen egitura aztertzea ere bada, "Arrisku-Soldata" programaren helburuetariko bat. Aipatutako guztia aurrera eramateko, bost proiektugileek Udalak Zeharkale Estalian duen aretoan egingo dute lan. Programa bera, Irun, Oñatin eta Bergaran ere ari dira burutzen.

## Uherkapeko horma apuntalatzeko

Uherkapeko obrek bere martxan jarraitzen dute. Lan horietan pasa den asteazkenean hormaren bigarren zatia apuntalatzeko hasi ziren. Jakina denez, horma egitearen helburua Uherkapeko malda indartzea da, mugitu ez dadin. Dagoeneko, kamioiak, eskabadorak eta langileak lanean hasita daude.

## MCC hamabi merkatal zentru handi zabaltzekotan

Lagun Arok, MCCko borondatezko prebisio sozial mutuak eta Filo S. A. inmobiliariak osatutako elkarteak, Estatuan hamabi merkatal zentru handi zabaltzeko asmoa dute, Max Center izeneko proiektuan. Proiektua aurrera eramateko, Max Centerrek 150.000 milioitako inbertsioak egingo ditu. Dagoeneko, Bilbo inguruan, Kareagako zentrua ireki da. Guzti honi buruz informazioa emateko, atzo prentsaurrekoa eskaini zen MCCko aretoan.



### ARRASATEKO UDALA

Arrasateko Udalak **ZUZENBIDEAN LIZENTZIATUA BEHAR DU**, hiru urterako, Administrazio Orokorreko Teknikari lanpostua betetzeko.

Hautaketa-prozesua agintzen duten oinarri-arauak Udaletxean (Pertsonal Sailean) jaso daitezke.

Eskabideak aurkezteko epea azaroaren 2an amaituko da, astelehena, eguerdiko ordubatean.

# Herrian egiten ari diren lanen nondik norakoa

Amaia antzokia eraberritzeko obrak gel-dituta, Santa Barbara parkea eta Azokaren eraberriketa bukatuta eta San Kristobalگو hilerriaren lehen faseko obrak bere martxan, izango litzateke Udala herrian egiten ari diren lanen diagnosi azkarra.

Urte amaierarako Amaia antzokia eraberritzeko lanak bukatzea espero zen, baina hasierako 140 milioitako aurrekontuan igoera nabarmena egongo dela ikusi eta gero, gularazi egin dira. Dirudienez, orain proiektua hobeto definitu behar da eta aurrekontua egoera berrira egokitu. Gauzak horrela, Amaia antzokia berriztua ikusteko seguruen uda aldera arte itxaron beharko da.

Santa Barbara parkeko obren inaugurazioarako ez da hainbeste itxaron beharrik izango, dagoeneko bukatuta daude eta. Dena dela, oraindik ez da inaugurazio horren datarik finkatu, eta lehenago edo beranduago politikoez erabakiren bat hartu beharko dute. Izan ere, guztira 130 milioitako aurrekontua izan duten parkea egokitzeko obrak oraindik ofizialki amaitu ez direnean, haurrak egunero hesi gaitetik pasa eta han ibiltzen dira ziburuetan gora eta behera. Beraz, argi dago parkea lehen bait lehen ireki beharra dagoela.

Azoka plaza eraberritzeko obrak, berriz, bukatu ziren eta joan den ostiralean ireki zen, nahiz eta inaugurazio ofiziala gaurko utzi. Obra honek 45-50 milioitako aurrekontua izan du eta postuetan sartu barik, erabe-



Santa Barbara inauguratzeko moduan dago.

ritze orokorra egin da.

Azkenik, San Kristobalگو hilerri berriaren obrak aipatu behar. Aurrez espero zen bezala, lehen faseko obren amaiera urte bukaerarekin batera iritsiko da. Obra honen aurrekontuan ere, aldaketa txiki bat egin behar izan zen bere garaian eta badirudi 340 milioitako kostua izango duen obra hau, bai denboraz eta baita diruz ere, nahiko ondo doala, aurrez espero zen bezala.

## Portaloiko termometroa berriz apurtuta

Aurten Portaloiko termometroa lau aldiz apurtu dute, azkena asteartean. Asteazkenean bertan Udaletxeko langileek berri bat jarri zuten. Termometroak 15.000 pezeta balio ditu gutxigorabehera.

## Ez araututako Heziketa planean lau ikastaro

Azaroan zehar, Heziketa ez araututako planaren barne, lau ikastaro burutuko dira Eskola Politeknikoan. Azaroaren 2an Fagorreko kontrolaren programazioa eta erabilera; hilaren 9an, berriz, digitalizazioa eta neurketa automatikoa ikastaroa. Azaroaren 23an lehen ikastaroa errepikatuko da, baina beste maila batean eta 30ean instalakuntza eta mantenimenduari buruzkoa hasiko da. Informazio zabalagoa Eskola Politeknikoko 79 47 00 telefono zenbakian, Isabel Mangagnatik galdetuz.



**DAMKAR'T**

Estetika eta  
Ileapaintzaile Eskola  
M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.  
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52  
EIBAR



**UXARTE**  
Kafetegia,  
gozotegia  
Gauzez irekita!!  
JO TA KE!!

Bañez doktora, 12  
Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE



- Ikusentzunezko mekanografia. minutuko 200etik 350 pultsaziotara.
- Irakaskuntza garantizatua.
- Ordenagailu bidezko mekanografia.
- Master V. D. takigrafia.

Otalora, 3 1.C ARRASATE Tfnoa: 79 68 53

**PUB  
HAIZEA**




arrasate

**ARRASATE  
PRESS**

**HARPIDETZAK**



**77 05 65**



Gazteizko odol bankutik Eskola Politeknikora etorri ziren pasa den asteazkenean. Jarri zituzten euren aparailu guztiak eta gazte asko hurbildu ziren bertara arratsaldean zehar. Polita izan zen Eskolako gazteek horrelako interesa azaltzen dutela ikusteak.

**Pasa den larunbatean 1942ko kintokoek egun polita pasatu zuten, meza eta bazkari ederrarekin. Urtero biltzen direnez, hainbat kontu izango zituzten elkar gogoratzeko. Aurten, hamaika lagun bildu ziren Musakolako Hostaleko bazkarian. Hurrengoan ere animatu!**



**Larunbatean Azpeitian jubilatuta eta pentsiodunen ibilaldi neurtua egin zen. Bertan parte hartu zuten 17 arrasatearrek, bost kopa lortu zituzten, patrula gazteenak 4 eta gizon gazteenak beste bat. 11 kilometro izan ziren eta demostratu zuten bezala, oraindik forman daude. Zorionak guztioi!**



Pasa den astean, Bilbotik autobus bat heldu zen gaztez beteta Arrasatera. Institutoko lehen mailako gazteak

ARRASATE PRESS bisitatu ondoren ATBn ere egon ziren. Hemendik irten eta Ondarribira joan ziren eskursioan

**"EDERTU"**  
ileapaindegia

San Andres auzoa  
Tfnoa: 79 04 28

**UDALAITZ**  
TABERNA

Erdiko kale, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 20 61

**ARRASATE**  
PRESS  
**HARPIDETZAK**

**77 05 65**

## IZEN PROPIOAK



Istoria polit baten protagonista dugu *Mendi*. Bederatzi hilabete etxetik kanpo egon ondoren, bere jabearen lantokira joan zen bere bila. Nahiz eta topatu zutenean hezu-

rretan egon, argazkian, Angel Unamuno bere jabearen ondoan ikusten den bezala, benetan txakur dotorea da *Mendi*. Ongi etorri etxera!



EPELDE

Anaje Iturbe eta Manu Mujika uztailaren 18an ezkondu ziren. Argazki honek egun hura gogoratzeko balioko dizue-lakoan, Zorionak bioi!

● **Fermin Etxebarria** zarauztarra izan da Belau-naldi Gaztea argazki lehiaketako irabazlea. "Pensamientos" izeneko argazkien bilduma izan da lehen saria eman diona. Bigarrena **Mario Turega-no** madrildarra izan da eta Arrasateko lehena **Karme-lo Uribarren**, laugarren saria eskuratuz.

● **Maria Pilar Baldeza-te Martin**, 29 urteko arrasatearrak, 12. postuan heldu zen metara Donostiko XV. maratoian. 20 emakume bakarrik bukatu zuten froga. Bestalde, maratoia bukatu duen Arrasateko emakume bakarra izan da.

● **Sara Agirre**, 25 urteko arrasatearra, gaur bertan irten da Kroaziaruntz. Medicina ikasi du eta aurretik Ginean ere egon da osasun zerbitzuan. Kroazian 21 egun pasatuko ditu eta Euskadiko beste hiru lagunekin joan da.

## BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84  
ARETXABALETA


## TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Planoen erreprodukzioa  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62



Uriburu, 24  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 70 39



# ONARRIZKO IOGA IKASTAROA

EMALEA: JOSE LUIS ARMENDIA  
EGUNAK: URRIAREN 6tik HASITA  
ABENDURA BITARTERAN  
ORDUA: ARRATSAIHALDEKO 3.30etatik  
TOKIA: AED ELKARTERA  
ANTOLATZAILEA: EKIN  
EMAKUME  
TALDEA



9401 LEPOA 1. LEHIA 7. 9.54  
20501 ARRASTE GUTUUA

# SUKALDARITZA IKASTAROA

EMALEA: ALBERTO ELORZA  
"Zelai-zabaleko" SUKALDARIA.

EGUNAK: URRIAREN 7tik, 27ra.  
ORDUA: ARRATSAIHALDEKO 3.30etan.  
TOKIA: AED ELKARTERA  
ANTOLATZAILEA: EKIN  
ENTAKUHE  
TALDEA.

MATE



# Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN



## Astero-astero informazio zabalena ARRASATE PRESSEN

Astebeteko atzerapenez, baina hemen gara aurten ere, Zaldibarko Futbito Txapelketaren berri zabalena eskaini nahirik. Horretarako antolatzaileekin ahalik eta harreman estuena izango dugu, eta antolatzaile izan barik, orrialde honetan zerbait esateko duenak

ere aukera guztia izango du. Emaitzak, sailkapenak, asteburuko partiduak, argazkiak, txutxumutxuak eta aurten, lehenengoz, sariketa bat, *Non dago baloia?* izenokoa, txapelketak jokatzeko gain, ARRASATEPRESSEN jokatzeko aukera ere izan dezazuen.

**EDERRA  
TABERNA**

Iturriotz, 12 ARRASATE  
Tfnoa: 79 96 25



DEBA  
**GARAIA**

MONDRAGON BERGARA ELGOIBAR

Arrasaten, Iturriotz, 23 azpia  
Tfnoa: 77 13 02

Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, ikusbideekin, 3 logelakin eta trastelekua eta guztiz hornitua, baldin badauzkat 1,5 miloi pezeta eta 45.000 pzta / hilero?

**SEGURASKI BAIETZ !**

<b>a</b> taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	2	2	0	0	26	3	4
ARRASATE KIROLAK	2	2	0	0	10	2	4
URMAY B. K.	2	2	0	0	14	3	4
LOS HEREDIA	2	2	0	0	13	3	4
DANOK LAGUN	2	2	0	0	11	3	4
AIZPUN BILA	2	2	0	0	9	5	4
ZULOAK	2	1	1	0	9	4	3
BUKANAK	2	1	1	0	8	7	3
BETRAYER	2	0	2	0	7	7	2
KAIKO LENIZ	2	1	0	1	7	8	2
WHISKERIA LINDE	2	1	0	1	7	13	2
GARIBAY-5	2	0	0	2	5	11	0
DRINK TEAM	2	0	0	2	4	10	0
ITT	2	0	0	2	3	8	0
RESAKAS	2	0	0	2	5	13	0
SIBILIUS ROVERT	2	0	0	2	2	6	0
DRAFT	2	0	0	2	3	16	0
AMOZKIBAR II	2	0	0	2	3	24	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>36</b>	<b>16</b>	<b>4</b>	<b>16</b>	<b>146</b>	<b>146</b>	<b>36</b>

<b>b</b> taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
FOSFOROS	2	2	0	0	18	3	4
MIKELOS	2	2	0	0	9	2	4
ZIZTI-ZAZTA	2	2	0	0	18	4	4
DIEGO ANTONIO	2	2	0	0	12	5	4
BIZKORRAK	2	2	0	0	9	4	4
JODO FLORO	2	2	0	0	9	6	4
KAKAJAURI	2	1	0	1	5	3	2
BAR KAJOI	2	1	0	1	7	7	2
ZULUS	2	1	0	1	10	11	2
PUBLICOOP	2	1	0	1	4	8	2
GATZBAKUAK	2	1	0	1	2	10	2
BAYER PROM.	2	0	1	1	7	8	1
LAUTHERBRUNNEN	2	0	1	1	4	5	1
ANBOTOSTE	2	0	0	2	5	11	0
LA BANDA	2	0	0	2	4	10	0
MOTZ	2	0	0	2	7	18	0
TRONKOTEAK	2	0	0	2	5	15	0
ATERPE KAFETEGIA	2	0	0	2	2	7	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>36</b>	<b>17</b>	<b>2</b>	<b>17</b>	<b>137</b>	<b>137</b>	<b>36</b>

<b>c</b> taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITRI	2	2	0	0	19	4	4
NOSKI	2	2	0	0	10	3	4
ARRASATE KRIST.	2	2	0	0	13	6	4
ALPARGATA TURBO	2	1	1	0	15	3	3
ADELAIDA	2	1	1	0	8	2	3
NUEVO TABERNA	2	1	1	1	12	5	3
ADOBE	2	1	0	1	13	4	2
TXOKO TABERNA	2	1	0	0	9	6	2
KRISKIBALDA	2	0	2	1	3	3	2
LASO-ARREGI	2	1	0	1	5	5	2
ATXANTA KE TE.	2	1	0	1	4	15	2
GANBELAS	2	0	1	1	4	5	1
AUF DEM KOFFER	2	0	1	1	5	9	1
NABARROS	2	0	1	1	7	13	1
ALLA KUIDAUS	2	0	1	1	3	7	1
GURE LEKU	2	0	1	1	7	17	1
BALEIKE	2	0	0	2	4	16	0
SEGUROS ORBITA	2	0	0	2	4	22	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>36</b>	<b>13</b>	<b>10</b>	<b>13</b>	<b>145</b>	<b>145</b>	<b>36</b>

<b>d</b> taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
FOTO IMAGEN	2	2	0	0	15	3	4
LENITZ GARAGAR.	2	2	0	0	9	2	4
SOLANO 7 MARES	2	2	0	0	15	5	4
SUM. UGARTE	2	1	1	0	11	3	3
NOTXINGAN FLO.	2	1	1	0	10	6	3
KOXKAS	2	1	1	0	7	5	3
PEPELUS	2	1	0	1	11	6	2
MONTERREY TAB.	2	1	0	1	9	7	2
SOKOAKOAK	2	1	0	1	6	6	2
POTROAK LORATEGI	2	1	0	1	8	11	2
ZOTZ	2	1	0	1	6	10	2
UGLYS	2	1	0	1	3	8	2
LOS DIMY	2	0	1	1	7	8	1
OLEEE!	2	0	1	1	8	11	1
ARTZANKOS UDAL.	2	0	1	1	7	11	1
ILUNA BAR	2	0	0	2	4	12	0
BAYER DE LEINTZ	2	0	0	2	4	17	0
EZKINAKO HONTZAK	2	0	0	2	2	11	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>36</b>	<b>15</b>	<b>6</b>	<b>15</b>	<b>142</b>	<b>142</b>	<b>36</b>

**FOTO**  
**imagen**  
**ARGAZKI**




Zerkaosteta, 5  
Tfnoa: 79 66 87 ARRASATE

**AMAJUR**



EGUNEKOMENUA • AFARIAK • JAUNARTZEAK

Zuloaga, 6 Tfnoa: 77 04 79 ARRASATE



**Iluntz eta**  
**Iturriotz**  
**tabernak**

**ARRASATE**

**BELARRIRA**



**Erreboteak bereziki arriskutsuak izaten dira. Batek uste duenean jokaldia alde batetik joango dela, bapatean norbaitek hanka sartu eta aurrez pentsa zitekeen guztia hankaz gora jartzen da. Horrelakoak norberaren ate inguruan gertatzen direnean, asunto txarra.**

◆ **Resakas** taldea, txapelketako lehen zigortua, bi puntu gutxiagoz. Lehen ihardunaldian, Maritxu Kajoi bixamonean taldearen izenari ohore eginez, ez zuten arbitratzeko ahalmenik izan. Hurrengoan txapelketatik kanpora.

◆ **Antolatzaileek** norbaiten aurka ezer ez dutela argi gera dadin, zozketaz disziplina-batzordea eratu zen, multzo bakoitzetik talde bat: Garibai 5, Ezkiñako Hontzak, Trikiti eta Bayer Promesas. Hemendik aurrera, ezarri beharreko zigorrak horien artean erabakiko dituzte.

◆ **Iaz** bezala, aurten ere poltsikoko egutegiak aterako dira eta aste honetatik aurrera, partiduak iragartzeko kartel berriak ikusi ahal izango dira.

◆ **Asteburuko** partidurik borrokatuenak, honako hauek: Urmay - Argi Ibili, Los Heredia - Danok Lagun eta Nabarros - Adobe.

**EMAITZAK**

**A TALDEA**

Drink Team 3 .....	Bukanak 4
Zuloak 3 .....	Betrayer 3
Resakas 2 .....	Arrasate Kirolak 8
Aizpun Bila 4 .....	Sibilus Rover 2
Draft 2 .....	Los Heredia 10
Danok Lagun 5 .....	ITT 2
Argi Ibili 16 .....	Amozkibar II 1
Whiskeria Linde 5 .....	Garibai-5 3
Kaixo Leniz 1 .....	Urmay Burger King 6

**B TALDEA**

Izotz taberna 7 .....	Publicoop 1
Kakajauri 4 .....	Aterpe Kafetegia 1
Zulus 4 .....	Jodo Floro 6
Bayer Promesas 2 ...	Lautherbrunnen 2
Anbotoste KT 2 .....	Diego Antonio 7
Bizkorrak 5 .....	La Banda 1
Kajoi taberna 0 .....	Gatzbakuak 1
Motz 1 .....	Zizti Zazta 11
Tronkoteak 2 .....	Fosforos 8

**C TALDEA**

Atxanta ke te... 4 .....	Laso Arregi 3
Alpargata Turbo 3 .....	Ganbelas 3
Gure Leku 3 .....	Adobe F.C. 13
Nabarros 3 .....	Noski 9
Seguros Orbita 1 .....	Trikiti 12
Nuevo taberna 2 .....	Auf Dem Koffer 2
Baleike 4 .....	Arrasate Kristald. 7
Txoko taberna 0 .....	Adelaida-Haizea 6
Kriskibalda 1 .....	Alla kuidaus 1

**D TALDEA**

Monterrey taberna 8 .....	Uglys 2
Foto Imagen 10 .....	Ezkiñako Hontzak 2
Sokoakoak 0 .....	Lenitz Garagardot. 3
Oleee! 5 .....	Artzankos Udal. 5
Notxingan Florest 6 ..	Bayer de Leintz 2
Los Dimy 3 .....	Solano 7 mares 4
Potroak Lorategi1 ...	Sum. Ind. Ugarte 9
Iluna taberna 2 .....	Zotz 5
Pepelus 3 .....	Koxkas 5

I  
R  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
A

Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 71 80

Zarugalde kalean...  
**BRANKA**  
taberna

**ARRASATE**  
UMEEN JANTZIAK  
Otalora, 29 Tfnoak: 77 05 61  
ARRASATE

**LENIZ**  
garagardotegia  
Iturriotz, 8  
Tfnoa: 79 22 29  
ARRASATE

**Bodisca s.l.**  
Zeramikako pabimentu eta  
gaineztaldurak  
Otalora z/g. Zarugalde, 3 Tfnoa: 79 65 25 ARRASATE

**ASTEBURU HONETAN**

**Larunbata 17**

**Zaldibar**

- 08.45 Zotz / Sum. Ind. Ugarte
- 10.00 Zuloak / Bukanak
- 11.00 Atxanta ke te... / Gabelas
- 12.00 Lorategi Potroak / Koxkas
- 13.00 Aizpun Bila / Arrasate Kirolak
- 14.00 Anbotoste K. T. / La Banda
- 15.00 Foto Imagen / Uglys
- 16.00 Resakas / Sibilius Rover
- 17.00 Sokoakoak / Artzankos Udalaizt

**Iturripe A**

- 09.45 Zizti zazta / Gatzbakuak
- 11.00 Whiskeria Linde / Kaixo Leniz
- 12.00 Zulus / Lautherbrunnen
- 13.00 Nabarros / Adobe
- 15.00 Kajoi taberna / Fosforos
- 16.00 Seguros Orbita / Auf Dem Koffer
- 17.00 Urmay B. K. / Argi Ibil

**Iturripe B**

- 09.45 Dreank Tream / Betrayer
- 11.00 Mikelos / Aterpe Kafetegia
- 12.00 Gure Leku / G. P. Noski
- 13.00 Oleee! / Leintz Garagardotegia
- 15.00 Los Dimy / Bayer de Leniz
- 16.00 Notxingan Florest / Solano 7 mares
- 17.00 Adelaida Haizea / Arrasate Kristaldegia

**Igandea 18**

**Zaldibar**

- 08.45 Monterrey taberna / Ezkiñako Hontzak
- 10.00 Bizkorak / Diego Antonio
- 11.00 Txoko taberna / Kriskibalda
- 12.00 Danok Lagun / Los Heredia
- 13.00 Iluna taberna / Pepelus


**Iturripe A**

- 09.45 Trikiti / Nuevo taberna
- 11.00 Bayer Promesas / Jodo Floro
- 12.00 Motz / Tronkoteak
- 13.00 Baleike / Alla Kuidaus

**Iturripe B**

- 09.45 Laso Arregi / Alpargata Turbo
- 11.00 Garibai 5 / Amozkibar II
- 12.00 Draft / ITT
- 13.00 Kakajauri / Publicoop

**NON DAGO BALOIA?**



**Non dago baloia? badakizula uste baduzu, jarri erantzuna hemen azpian eta Zaldibarko Futbito Txapelketako antolatzaileek hileroko emango duten sari eder baten zozketan sartuko zara. Asteroko erantzuna bidali ARRASATE PRESSERA eta zorte on!**

- Erantzuna .....
- Izena .....
- Tfnoa .....

*Trikiti*

- Soinua
- Bideoa
- TB
- Komunikazioa

Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 77 13 20



Joxerra, Felix eta Alberto, Nepaleko mendi altuetatik etorri eta Monterroneko parkean

# Hiru lagun Everestetik bueltan

Beñardo Kortabarria

**Komunikabideekin egoteaz aspertuta daudela aitortzen dute Jose Ramon Zubizarreta eta Felix eta Alberto Inurrategik. Hala ere, ezagunak izanda, ez dute eragozpenik izan, bidaiako xehetasunen berri emanez ARRASATE Pressekin prestatuko galdeketa erantzuteko.**

- Abioian beldurrik?
- Joaterakoan ez. Bueltan apurtxo bat, abioi-istripu larri egon ziren inguru hartan eta.
- Zenbat ordu?

• Abioian hamabi ordu t'ardi.

- Hotel ona?
- Kategoriakoa, bakoitzarena, gosaria barne, 900 PTA gaueko, baina roilo mafiosoak geneukalako, bestela gaua 2.000 PTA ingurukoa da.
- Hango janariak?
- Nepalen beti onak.
- Alkoholik probatu duzue?
- Garagardo lighta eta Felixek whisky apurtxo bat, bizigarri bezala. Eta txanpaina eta ardo-frantsesa, ezpainak buztitzeko besterik ez bada izan ere.
- Denborapasarako?
- Liburuak, musika eta berriketa. Ez kartarik, ez pokerrik, ez partxisik...

**7**  
**00 kilo eraman ditugu, ez dugu hainbeste arropa eraman; Pumorira eta Makalura ere ez"**

- Sherpekin hitz egiteko?
- Primeran, ingelesez, euskaraz, erdaraz, italianoz, frantsesez, eskuekin...
- Hango neskak?
- Albertorentzat fenomenoak.
- Bai hangoak eta bai hemengoak eh! ez dago zatarrik, hangoak oso begirada politekoak dira.
- Ekipaje handia eraman duzue?
- 700 kilo, ez dugu hainbeste arropa eraman; Pumorira eta Makalura ere ez.
- Eta ekarri?
- Gutxitxoago beharbada.
- Alberto, amarentzat zer ekarri duk?
- Alfonbra bat.



liñurrategitarrek eta Zubizarreta Maritxu Kajoi batzordeak urteko pertsonaiei ematen dien enbutuekin. JUTXO

• **Eta neskari, Felix?**

• Bueno! neskari zer eka-  
rri dion jartzeko -dio Jose-  
rrak- zerrenda luzea beharko  
litzateke.

• Mimoak ekarri dizkiot.

• **Emazteari, Joxerra?**

• Ezer ez, neu etorri naiz  
oso-osorik eta nahikoa da.

• Hi, eta joyaxua?

• **Zer bota duzue faltan?**

• Betikotik aparte, entsa-  
lada ederrak, ardo ona, fruta,  
yogurrak...

• **Kanpamendu basea gar-  
bi geratu da?**

• Aztarnarik ere ez, ahale-  
gin guztiak egin ditugu garbi  
uzteko. Hortan militanteak  
gara, goiko kanpamenduetan  
ere ez dugu ezer utzi. Gaine-  
ra, sukaldariek eta, zentzu  
hortan nahiko zorrotz joka  
tzen genuen. Zabor guztia  
klasifikatuta jaitsi genuen,  
poteak, kartoia, jan-ondarra...  
pilak etxera ekarri ditugu.

• **Espedizioen arteko ha-  
rremana?**

• Hasieran nahiko hotza  
eta denborarekin berotuz joan  
dira, batez ere napparren mo-  
bidaren ondoren. Lehenengo  
uneak nahiko larriak izan zi-  
ren, agertzen ez zirelako. Ex-  
pedizio guztiek, lana alde  
batera utzi zuten erreskatea

prestatzeko.

• **Nola sentitzen da gorpu-  
tza alturatan?**

• Aurten fenomeno, beti  
igartzen da zerbait baina bes-  
te urte batzurekin konparatu-  
ta, hobeto.

• **Azken metroak?**

• Neketsuak eta luzeak.

• **Psikologikoki?**

• Azken metroak ez zaiz-  
kigu zailak iruditu, nahiz eta  
nahiko gaizki egon, elur gu-  
txirekin. Ez zegoen baldintza  
onenetan.

• **Eta zureztat, Joserra?**

• Oso luzeak. Azken ko-  
neksioa gailurrerako 200 me-  
tro falta zirela izan nuen, eta  
nik denbora berean behe-  
kanpamenduan azken 200  
metro horiek gutxienez mila  
bider egin nituen, 3 ordutan  
zain.

• **Egin beharrak egiteko?**

• Behean erdi-izkutuan eta  
eguzkiaren epeltasunean eta  
goian erdia kanpora eta erdia  
barrura.

• **Dutxa?**

• Eguraldi onarekin ura  
berotu eta gainetik bota.

• **Fax-ak Katmandhura  
eramateko?**

• Pertsona batek korreoa  
hartu eta bi egunetan Lukla-  
ko aireportu txikira eramaten

# A

**halegin guztiak  
egin ditugu  
mendia garbi  
uzteko. Hortan  
militanteak gara,  
goiko  
kanpamenduetan  
ere ez dugu ezer  
utzi... zabor  
guztia  
klasifikatuta  
jaitsi genuen"**

zitzen, ia 75 kilometro egiten  
zitzen bi egunetan.

• **Urte berezia izan da Ever-  
est igotzeko?**

• Ez du hainbeste jende  
igo, hemengo jende askok bai,  
baina jende gutxi igo du.

• **Euskal mendizaleta-  
sunean badago harrobirik?**

• Jendea konturatu da Hi-  
malayara joatea ez dela hain  
zaila, tontorra egitea beste  
kontu bat da, baina joatea ez  
da hain zaila eta orain hasi da  
apur bat mugitzen. Dena dela,  
denok bide klasikoetan gabil-  
tza, ez dugu aportazio berri-  
rik egin. Jende berriak ez da-  
kigu zenbateraino egingo  
duen zerbait, batetik teknika  
aldetik ez dakigulako zenba-  
teraino eta bestetik bolume-  
nez ez delako oso handia.

• **Eta zuek?**

• Guk prozesu bat bukatu  
dugu, altuera landu dugu eta  
urrats berri bat emateko prest  
gaude, altueran zailtasun ge-  
hiago jarri. Zaila da expedi-  
zioak antolatzea, hemen gero  
eta nekezagoa da dirua lort-  
zea eta era berean han garesti-  
tzen ari da guztia.

Norbait animatuko balitz  
gurekin apostu egitera,  
proiektu serio eta eder batean,  
proiektu majoa dugu, garesti  
samarra. Asmoa datorren ur-  
tean egitea da, baina kamise-  
tak salduta ezin izango dugu  
ordaindu.

• **Espedizio handietatik  
txikietara dagoen diferentzia?**

• Diruak eta materialez  
aparte, txikietan lan gehiago  
egin behar da, baina autono-  
mia gehiago ere badago,  
samurragoa da mugitu, in-  
probisatu edo erabakiak har-  
tzea.

• **Nondik aurrera igarten da  
oxigeno falta?**

• 3.500 metroetatik gora eta  
n a b a r m e n - n a b a r m e n  
8.500etik gora.

• **Hotza ala beroa nahiago?**

• Beroa eta kokotero ar-  
tean. Termometroa gehien  
zerotik 40 gradutara egon zen,  
eta zero gainetik, berriz 25era  
ere bai. 7.300 metroetara ka-  
miseta bategaz eta ortozik  
egon izan gara, eguzkia har-  
tzen; baina 25 graduetatik Ora

ordubetea jaisten zen, eta laster -10era. Eguzkia izkuta-  
tu eta gero berehala jaisten da  
tenperatura.

• **Zer sentitzen da tontorra egitean?**

• Jaisteko gogo eta deskantsua kentzen den konpromezuaz, batez ere kaleko jendearekiko, sudaderak edo kamisetak erosi dituen jendearekiko.

• **Zer utzi duzue tontorrean?**

• Kilo pila bat. Ezer ez, ez dugu ohiturarik, garbi utzi behar da eta.

• **Izozketekin akordatu zarete?**

• Bai eta neurriak hartu ditugu, ur asko edan, bero-poltsak eraman, manopla ederrak... material onena eramaten saiatu gara.

• **Norbaiti esker berezirik?**

• Felix-ek neskari ekarri dizkion oparien zerrenda bezain luzea izango litzateke.

• **Herrira itzultzerakoan?**

• Ez zaizkigu larregi gustatzen horrelakoak, baina jendea horrela bolkatuta ikustea gauza polita da.

• **Bertako jendea?**

• Fenomenoa, guk behintzat zorzea izan dugu. Aurretik ezagutzen genituenak libre zeudenez, geurekin etorri ziren. Sukaldaria izan ezik, gainontzekoak oso langileak; sukaldariak laguntzaile-fina zuen, eta lanean baino jokoan irabazten zuen gehiago. Eguzker 150 rupia (300 PTA) ordaintzen genion eta jokoan beharbada 800 rupia irabazita etortzen zen.

• **Jaisterakoan zer?**

• Eskapada bion artean -dio Albertok-, xelebre hau arduratu balitz ba ezer ere ez, gainera abixatuta, "banoie, banoie" eta berak "neu ere bai, neu ere bai", "hala ba gozak", kolpe bat belaunean. Alegre biribilketan gindoaizen, sokaz trabatu eta muturrez aurrera joan nintzen, baina ez zen toki arriskutsua.

• **Izozketak, zergatik?**

• Ez dute materialarekin zer ikusirik. Baldintza onetan praka motzetan egon daiteke, baina aldatzen direnean lu-



Tontorretik ikusten ziren mendi guztiak egitekotan dira oraindik.

**zozketek ez dute zerikusirik materialekin, hankasartze edo despisteek izaten dute errua gehienetan"**

mazko-buzoak ere ez du bali-  
o, hankasartze edo despisteek dute errua. Altueran odola oso astuna egoten da, presio atmosferikoa heren bat da, bihotzak ez du behar bezala lan egiten.

• **Zer ikusten da goitik?**

• Nepal aldea eta Tibeta, oso polita: Tibet-a lehorra eta marroia da, mendi bajuak; Nepal aldera, berriz, mendi zorrotzak ikusten dira.

• **Everest-a lortuta, zer gelditzen zaizue?**

• Bertatik ikusten ziren danak egiteko...

• **Denbora guztian gailurra lortzeko konfidantza?**

• Ziur nengoen igo behar zutela.

• Ez dakit -zioen Albertok- bajoi psikologikoa izan nuen eta gero Joserra hain konfiatuta ikusten nuen... esaten nuen "igoten ez bajuau, gixajo hau", beragatik igo

dugu.

• Luzea zen -dio Felixek- eta morala jaten zuen.

• **Lanerako gogorik?**

• Lana beti izan da txarra, bestela ez lukete ordainduko.

• **Komunikabideei zerbait esateko?**

• Ez izateko hain pelmak eta idazten dutena ondo idazteko.

• **Parrandaren bat egiteko asmorik?**

• Oraindik tajuzkorik ez dugu egin, baina gorpuzak ez digu eskatzen. Baina oraindik deskuidatuko gara.

• **Alberto, gailurrera iritsitakoan, zer esan zenion anaia-ri?**

• Ez dakit, gogoratzen dut bidean esaten niola datorren urtean Seychelles-etara joan behar genuela, akaso "beno hau eginda jaok" edo horrelakoren bat esango nion.

• **Felix, zuk?**

• Berba egiteko gogo gutxi eraman nuen nik hara.

• **Zer esan zizuten Jose Ramon? Zuk zer esan zenien?**

• "Gora Euskadi Askatuta, ein juau!", nik kontuz jaisteko esan nien, oso inportantea zela jaistea, azkar baina poliki jaisteko, berandutzen ari zuen eta nik batez ere, horren kezka nuen.

• **Denbora asko gailurrean?**

• Ordulaurden bat. Soka barik igo genuen eta azken arista pasatzeko soka bila ibili ginen, espedizio zaharretako sokak moztu eta gorapiluak egiten. Pisua arintzeko motxila bat utzi egin genuen eta bakarrarekin igo, han soka ahaztu zitzaigun, gero Naparren zain ere egon ginen... berandutu azkenerako.

• **Zenbat argazki?**

• 36 argazkiko 84 karrete, guztira 3024 diapositiba.

• **Joxerra, zenbat kilo gutxiago?**

• Ez dakit. Bi hauek mikoa nintzela zioten, baina hangoek edozer gauza jaten zuten, deskuidatuz gero ni neu ere jango ninduten.

• **Famaren prezioa?**

• Garestia, gurea mendiak igotzea da, ez beste ezer.

# Mila ume inguru 'Arrasate Kirol Proiektuan'

**Arrasate** Kirol Proiektuaren 3. edizioa burutuko da maiatza bitartean. Arrasateko Udalak bideratutako proiektu honetan, Udaleko Hezkuntza Batzordeak, AUKEAk, Gurasoen Elkarretek, Kirol Elkarretek, herriko ikastetxeek eta Aldundiko Kirol Zuzendaritzak hartzen dute parte.

Proiektu honetan, aurreko bi urteetan ikastetxe ezberdinetako umeek hartu dute parte, guztira 1.000 inguruk; aurten, 900 haurrek eman dute izena eta baliteke gehiago izatea, izena emateko epea oraindik zabalik dago eta. Izena emateko, haur bakoitzak bere ikastetxeko arduradunari esan behar dio eta 2.100 PTA ordaindu; ikastetxeek, berriz, matrikulatuta duten haur-kopuruaren arabera, kuota ordaintzen dute.

Arrasate Kirol Proiektuaren helburu garrantzitsuena haurrek pertsona bezala hezkuntza integrala lortzea bada ere, ez da bakarra; hor daude, kirol heziketa eta ohitura batez jabetzea, lagunak egin eta beraien arteko harremanak sakondu eta garatzeko bideak jartzea, esperientzia berriak garatzeko aukera izatea.... Aipatutako helburuak lortzeko, giro atse-

gina, instalakuntza egoki eta langilego espezializatuari berebiziko garrantzia ematen zaio. Era berean, umearen adina kontuan izanda, garapen fisiko eta psikologikoa lortzeko programa egokia jarraituko da, lau mailatan banatua: Psicomotrizitatea, 1. eta 2. mailako haurrentzat, haurrak garapenerako oinarrizko trebetasun motrizak beregana ditzan. Aurrekirola, 3. eta 4. mailako haurrentzat,

aurrerantzean kirol ezberdinak menperatzeko oinarri fisiko, ezagumenezko eta sozialak beregana ditzan joku zuzenduaren bidez. Multikirola, 5. eta 6. mailako haurrentzat, kirol ezberdinen oinarrizko teknika lantzeko. Espezializazioa, 7. eta 8. mailako haurrak kirol bat edo bi aukeratu eta sakondu ditzaten.

Iaz bezala, ikasturteari bukaera festa erraldoi baten bidez emangozaio.



Kirola egiteko aukera zabala izango dute gaztetxoek.

## LABURRAK

### Arrasatearrak maratoian

Ez aurreneko postuetan, baina arrasatearrikizan zen pasaden igandean Donostian burututako maratoian. Behar bada gehiago izango ziren, baina Arrasate Press-ek eskuratutako informazioaren arabera, hamalau arrasatearrek lortu zuten kirol-proba hau amaitzea, euren artean Maria Pilar Baldezate, maratoi bat bukatzea lortzen duen lehen emakumezko arrasatearra. Horretaz gain, aipagarria da Ramon Jausoro atxabaltarrak, maratoiko seigarren postu orokorra lortu zuela, eta horri esker Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldun izendatu zutela. Ez dira ez, atxabaltarrak Everest-a igotzearekin konformatu!


### Pilotan Aretxabaletari irabazi, Antzuolarekin berdindu eta Azkoitiarekin galdu

Asteburuan denetarik egin zuten Arrasateko pilotariek, txikiak Aretxabaletaren aurka jokatutako hiru partiduetatik bi irabazi zituzten, infantil eta kadeteek. Jubenilek, berriz, antzuolarren aurkako bi partiduetatik eskuz-eskuko galdu eta bikotetakoa irabazi egin zuten. Azkenik, seniorrek, azkoitiarren aurkako bi partiduetatik galdu egin zituzten. Aste honetan Arrasaten jokatuko duten bakarrak, alebin, infantil eta kadeteak izango dira, larunbatean Iturripen 11etan eta Elgetaren aurka.

**VE ECUADOR**

Bidaiak

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06



**EGVZKIGRAF**

Grafikagintza. Tipografia.  
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala



**PENALTIAK**

● **Bartzelonako olimpiadak** bukatu berri dira, baina batzuk dagoeneko hasi dira Atlantakoetan pentsatzen. Azken berrien arabera, **Angel Garcia Estatuko Halterofilia txapeldun arrasatearrak bertan egoteko aukera handia izango luke. Bere izena oso aipatua izan da Euskadiko Federakuntzan eta orain laguntza beharko du.**




● **Denboraldia hasita** badago ere, **Arrasate Saskibaloia Taldea** oraindik patrozinatzaile bila ari da. **Dirudenez, saskibaloikoak bi enpresen erantzunaren zain daude, bata bertakoa eta bestea kanpokoa. Esperantza omen da galtzen den azkena.**

**Liderrarekin berdindu ondoren, Mondra bide onetik**

Mondra momentu onean dabil eta gainera gorantz doa. Igandean, etxean berdindu egin zuen, baina ez edozeinen aurka, Irungo Real Union liderraren aurka baizik. Irundarren kategoria kontuan hartuta eta arrasatearrek egin zuten jokoa ikusita, badirudi Mondrak aurten aurreko urteetan baino hobeto ibili beharko duela. Hori baieztatzeko hurrengo aukera Tolosan izango da, ea arrasatearrak bi punturekin bueltatzeko gai diren!

◆ ◆ ◆  
**Espero zenuen maratoian 6. posturik?**

Espero espero ez, maratoia hain luzeaenez edozer gauza gerta daiteke eta, ondo egitea zaila da, baina preparatuta nengoen.



**RAMON JAUSORO**  
**Gipuzkoako eta Euskadiko maratoi Txapeldu berria**

**EMAITZAK**

**Eskubaloia**

Lehen mailako seniorrak: Arrasate 20 - Bergara 20.  
Juniorrak: Leizaran 26 - Arrasate 23.  
Jubenilak: Mondra 7 - Hondarribia 17.  
Kadeteak: Mondra 8 - Hondarribia 14.

**Hurrengo partiduak**

Juniorrak: Iturripen, Arrasate - Zarautz, larunbatean 17.00.

**Pilota**


Gipuzkoako liga  
Alebinak: Arrasate 13 - Aretxabaleta 18  
Infantilak: Arrasate 18 - Aretxabaleta 4  
Kadeteak: Arrasate 18 - Aretxabaleta 5  
Jubenilak: Eskuz esku: Antzuola 18 - Arrasate 4  
Biketeka: Antzuola 20 - Arrasate 22  
Nagusiak: Eskuz esku: Azkoitia 18 - Arrasate 8  
Biketeka: Azkoitia 22 - Arrasate 11.

**Hurrengo partiduak**

Txikiak: Iturripen, igandean 11etan.

**Saskibaloia**

Bigarren maila:  
Gizonezkoak: Arrasate 90 - Gasteiz 82  
Emakumezkoak: Agurain 53 - Arrasate 58  
Seniorrak: Arrasate 81 - Goierri A 65  
Jubenilak: Don Bosco 57 - Arrasate A 68  
Arrasate B 49 - Iraurgi 60



Emakumezko kadeteak: Arrasate A 41 - Orio 84  
Gizonezko kadeteak: Arrasate B 48 - Miner Ardoak 21

**Hurrengo partiduak**

2. maila emakumezkoak: Arrasate - Lanas Stop, Musakola, larunbata, 18.00.  
Jubenilak: Arrasate - Ordizia, Musakola, larunbata, 16.00.  
Kadeteak: Arrasate A - Andraitz, Musakola, larunbata, 12.00.  
Arrasate B - Arrasate C, Iturripe, igandea, 10.00.  
Emakumezko kadeteak: Arrasate B - Bergara, Iturripe, igandea, 10.00.

**Rugbya**

Seniorrak: Bilbo 23 - Arrasate 20.  
Jubenilak: Arrasate 20 - Mungia 0.

**Hurrengo partidua**

Seniorrak: Arrasate - Hernani, Atxabalpen, larunbata 16.00etan.  
Jubenilak: Irun - Arrasate, Irunen, igandea 11.00etan.



**ETXEPARE - BILINTX**  
**LIBURUBENDA**

**Liburuak eta diskoak**

Ibargarai, 12 BERGARA  
Tfnoa: 76 40 50

**Gabriel Elorriaga Dka.**

**Loditasuna Zelulitia**  
**Zelulolipolisiaren tratamendua**

Santa Kruz, 24-1ª (1ª C eskailera)  
ARETXABALETAN Tfnoa: 79 13 54

# Almenek hizkuntz atzeritarren apustua

Imenek aukera bat egina du bere ikasleek atzeritar hizkuntzetan formakuntza sendoa lortu dezaten. Zergatia erraz uler daiteke. Atzeritar hizkuntzak balio erantsi garrantzitsua ematen diote pertsona baten prestakuntzari eta hau da, bada, gure zeregina. Gure ikasleengan kapazitazio hau lortzea.


Helburu horrekin hasi ginen orain bost urte Lehen Mailako haurrekin ingelesa irakasten. Emaizak orain arte pozgarriak dira eta promozio honetatik aurrera, gaur egun 5. mailan daudenekin plangintza aurrera eraman ahal izango dugu.

## Plangintzaren helburua

Nahi duten ikasleentzat hiru atzerriko hiru hizkuntzaren ezagupena ahalbidertzea.

Ingelesa, hamabi urtetan zehar, 6-18 urte bitartean, oinarrizko formakuntza egoki lortuz.

Frantsesa, 6 urtetan zehar, 12-18 urte bitartean, interesa



tuta dauden ikasleentzat. Bigarren hizkuntza honen helburua hau da: hizkuntza erabiltzen jakitea adierazteko eta ulertzeko.

Alemana, bi urtetan zehar, 16-18 urte bitartean, hizkuntzak gogoko dituztenentzat. Helburua hemen atek zabaltzea da, gero bere formakuntza jarrai dezaten.

Plangintza honek hiru

hizkuntzak batera lantzea ahalbideratuko du eta bertan, nahi duten ikasle guztiek parte hartu ahal izango dute.

## Aurtengo aurrerapausua

Nagusiagoak direlako, plangintza honetatik kanpo geratzen diren ikasleak aukerarik gabe uzterik ez dugu nahi izan. Erdi bideko aukera era-

biliz, 14 urteko zenbait ikasleri eman diegu frantsesa ikasteko aukera 14-18 urte bitartean.

Zoritxarrez ez da posible gaur egun plan hori denei zabaltzea. 52 ikasle sartu ahal izan da bakarrik, ikasle hauek bere ingeleseko formakuntza Almenetik kanpo jarraitzen dutelarik.

Esan bezala, frantsesez hitzegin eta ulertzeko arazorik ez izatea da helburu eta berau lortzeko metodologia egokia erabiltzen da.

Datozen bi urteotan ere bide hau jarraituko dugu, hiru urte barru aipatutako plana zabaldu arte.

Ahizkeren aholkularitza jasotzen ari gara eta, era berean, hizkuntza batean sakontze maila lortu nahi duten ikasleei aukera ematen zaie.

**ARANTZA ETXEBERRIA,**  
**ALMENEKO ZUZENDARI**  
**PEDAGOGIKOA**



HEZIBIDE



# ARIANE

**Emakume-gizonezkoentzat barruko jantziak.**

**Haur txikientzako erropa-jantziak.**

**IREKI BERRIA!!**

**ZATOZ GURE AUKERA IKUSTERA!!**

Erdiko kale. ARRASATE Tfnoa: 79 13 43




**Zugandik hurbil eta harrituko zaituen prezioekin.**

- Goi mailako kalitatea
- Garantiadun jantziak
- Diseinu berrienak
- Adin guztientzat

**Ondo jaztea eta gainera eroso joatea gustatzen bazaizu.**

Araba Etorbidea, 18 ARRASATE Tfnoa: 77 14 86



**ARRASATE  
KIROLAK**



**ARRASATE KIROLAK**en pozik gaude Everesteko espedizioak erabili duen materiala teknikoaren hornitzaile izan garelako.

**GURE GORETEEX** produktuetan jarritako konfidantza eskertzen dizuegu, Astero jantzietan jarri duzuen.

Mendizale, diseinua eta kalitatea, erosotasuna eta segurtasuna nahi badituzu, zatoz **ARRASATE KIROLAK**era. Maila prestigiodun hauen garantia eskaintzen dizuegu: **ASTORE, NORTH-FACE, SALEWA, MARMOT, MILLET, VESSANT, TRANGO, BOREAL, PELTZ, CHARLET, MOSER, KAMET, CHIRUCA, ROCA, JOANNY, RIVORY, LOEWE...**

**ARRASATE KIROLAK  
KIROL BAKOITZARENTZAT ERANTZUN BAT!!**

Kontzezino kalea, 8 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tefnoa: 79 46 12 / 77 12 47 Faxe: 77 05 30

# Garagartzako arte zaharra

**Garagartzan** bazen arte zahar bat, Joxe Letonak jasotzen duenez 600 urte inguru zituen. Gipuzkoako patriarka forestala deitzen dio berak, eta 1969ko irailaren 14ean bota zuten, arratsaldeko hiru terdian hain justu ere.

“Quercusflex” izeneko espeziekoa, 18 metro neuruzen zituen altueran, 20 metroko diametroa kopan eta enborraren perimetroa 4,80 metrotakoa, lurretik metro erdiko altueran.

Santa Agedarako bide ezkinan zegoen, auzoko eskolaren atzean eta San Miguel elizatik gertu. Bota baino berrogeitamar urte lehenago sute batek harrapatu zuen, igito familia batek azpian sua egin eta enborrak su hartu ondoren zuhaitzaren zati handi bat erre zen.

## Arrasate zuhaitzetan aberats

Arte eder hau ez da izan hala ere Arrasateko zuhaitzetan nabarmen eta deigarri bakarra. San Barbaran Goiko Balun zegoen izai ederra ere aipatu beharra dago, Adan de Yarzak 1854an Lekeitiotik ekarri eizuen. Beste askorekin batera, 1941eko hurakanak bota zuen Letonaren hitzetan.



Goian artearen erretratu zaharra, eta behean ihartu ondoren.



Monterroneko parkeko Sequoia erraldoia ere ospetsua izan da. 50 metroko al-

tuera eta lurretik metro batera 6 metroko zirkunferentzia ditu. Hogeigarren hamarkadan Gipuzkoako Diputazioak deitutako lehiaketa batean zuhaitzik altuenaren saria merezi izan zuen. Horrekin batera, ezin ditugu ahaztu parke horretako bertako Wellingtonia erraldoia, Libanoko izaiak, magnoliak...

Gaur egun Grupo San Juan dagoen tokian garai baten zegoen Sola Jauregiaren lorategiak ere jardintaniko paregabea eiziren.

## SUTONDOAN

### ATALTXXO (II)

Are esan eta abiatu zen, gure mutila aitarenaganako bidean. Kazuelak lartxo berotu zuelako edo bera bihurria zelako, (ziur ez dakigu), lehenbiziko tokitik astoaren belarriko zulora aldatu zen, inoren begietatik guztiz izkutatzen zela. Halaxe zihoala, hasi zen asto belarriari tiratuz, belarria nora nahi makurtzen zela eta, tankera horretan zegoela hitz eginda, konturatu zen bere txita jaiotze berriaren ahots makala guxtienez ehun aldiz hainbakoitzen zela eta astoaren belarria hotsge-higarri edo altaboz bikain bihurtzen zela. Lehenengo bide bazterreko ardi batzuri txakur zaunka bat edo bi antzeztu zieten, eta haiek tximista bezala ezkutatu ziren, txakur gaizto izugarriren batek zalatzen zituelakoan. Geroxeago, txakur txiki batek bide-  
aritenik:

—Guau, guau, guau! Xagu-zaharrak jango al hau!

Eta hau, gizaundi edo giganteren bat mintzatzen zitzaio-lakoan, ez agur eta ez adio esan gabe, ahalik arinen inguru haietatik ezkutatu zen.

Berehalaxe, itxura gaiztoko lau lapurrek, beren paparrerainoko bizar zikin eta nahastuekin, gau hartako lapurretak eskuratu zien ontzako urre pila handia banatzen ziharduten, lurrean apalatx eginda.

—Bat, bi, hiru, lau.

—Bosgarrena neureztat!

Eta lapurrek, ez Jesus eta ez Amen esateko asti barik, diru guztiak bertan behera utzita, astoak hitz egin zielakoan, eta asto hura beste munduko izakiren bat zela sinistuta, oinak ahal bezain arin ezkutatu ziren

(Jarraituko du)

ARRAGI TAR TIBURTZIO

**ITSASKI**

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94



**aitzgorri**

LARRU eta LARRUKIAK

Salvatierrako larrukiak  
60km.tako beherapenarekin.

Maalako Errabala, 7 Tfnoa: 76 06 36 ARRASATE



Orduñan, 1936ko abenduaren 7an

**G**talde hau Orduña gaineko San Pedro mendian zegoen frentean, "gorriekin". Erreleboa etorri zitzaizela eta, kuartelera jeitsi ziren eta bidean Bilboko kazetariren batek atera zien argazkia talde txiki honi. Garai hartako egunkariren baten ere argitaratua ei da erretratu hau.

erra zibileko argazkia. 1936ko abenduaren 7a zen, eta mondragoetar

Goian, zutik eta ezkerretik hasita, **Felix Iraola**, **Jose Migel Egidazu** "Arruena" (†) eta **Kruz**

**Villar**; behean ezkerretik, **Angel Arregi** Legarre baserrikoa (†), **Bixente Uribetxeberria** eta **Juan Azkoaga** (†).

Guztiak Amaiur Batailoikoak ziren, eta horren barruan Arrasate Konpainiakoak. Tontorrean hotz handia egiten zuen, elurra mara-mara eta elurretan etzanda eman zuten gau osoa eta "hala be katarroik harrapau ez. Sasoie galanta!". Batzuk txapela, beste batzuk kaskoa, ahal

zuenak ahal zuena buruan; baina asko eta asko ei dira kaskoagatik bizirik irtendakoak.

Armatzat fusil arrunta erabiltzen zuten, eta manta bana, kartutxeran balak eta arrantxua jateko platera aldean. Argazkian ikusten den moduan, trapusko polañak erabiltzen zituzten. Eta gosea... "Gosea kentzeko fumau eta fumau; hantxe ikasi gauen guk fumetan".



Liburu eta paperdenda  
Bidaiarako eta  
larruzko artikulua

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

**EPELDE**

argazki denda

Iturriotz, 24  
ARRASATE  
TFNOA: 79 19 71



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aukiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

**Etxebizitzak**

- **Bost ikaslek etxebizitza behar dute Arrasate inguruan.** Tfnoa: 88 67 23.
- **Etxebizitza salgai San Andresen.** Foruen Plaza, 3.-5 ezk. Tfnoak: 79 47 28 eta (945) 44 51 99.
- **Bi irakasle pisu bila Arrasaten.** Dei egin egunez 79 04 11 edo gaeuz 88 66 23 tfnora. Arantzazu.
- **Ikasle batek logela behar du Arrasaten.** Dei egin 28 75 70 tfnora.
- **Etxebizitza salgai Zigarrolan.** Tfnoa: 79 79 94
- **Bi oheko logela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73
- **Etxebizitza berria salgai Zarugalden.** Tfnoa: (945) 25 89 03.

**Lana**

- **Lanak makinaz pasatzen dira.** Tfnoa: 79 78 75
- **OHoko klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 79 38 58.
- **Neska euskalduna behar da Gasteizen** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: (945) 24 48 52.
- **OHoko klase partikularrak ematen dira** eta euskarako maila guztiak. Tfnoa: 77 04 98. Marije.

- **Edozein lan mota egingo nuke.** Dei egin arratsaldetan 79 50 30 tfnora. Jose Migel.
- **Neska prest umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Dei egin 10etatik 3etara. Tfnoa: 76 05 63.
- **Esperientziadun sukaldari-laguntzailea** lan egiteko gertu. Tfnoa: 79 87 27.
- **Matematikazko klase partikularrak behar dira** larunbat arratsaldetan. Dei egin 79 93 52 tfnora gauetan eta galdetu Leiregatik.
- **Italianoko irakasle partikularra behar da.** Tfnoa: 79 21 72. Blanka.
- **Andrea prest umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko** edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 76 33 48.
- **Ingeleseko klase partikularrak behar dira.** Tfnoa: 79 72 92.
- **Umeak zainduko nituzke.** Dei egin 79 60 16 tfnora.
- **OHoko klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 60 16.
- **Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko.** Kotxea beharrezkoa da. Dei egin 8etatik aurrera 79 77 57 tfnora.
- **FP-2 mailako klase partikularrak behar ditut.** Tfnoa: 79 39 11.
- **Furgoneta duen mutila lan egiteko gertu.** Tfnoa: 77 04 87. Arratsaldetan.
- **Emakume euskalduna orduka etxeko lanak egiteko gertu.** Tfnoa: 79 07 73.

**Salerosketak**

- **Logela berri bat dut salgai.** Tfnoa: 79 10 51 (Goizetan edo gauetan).
- **Inpresora erosi nahi nuke nire ordenadorearentzat.** Dei egin 77 12 28 tfnora. Jabi.
- **Bideo grabatzailea, kamara eta monitorea Beta sisteman** interesatzen bazaizkizu dei egin. Tfnoa: 77 12 28. Jabi.
- **Spectrum ordenadorea eta 19 joku salgai** 24.000 PTAan. tfnoa: 79 93 91.

**Denetarik**

- **Asteazken honetan (urriak 7) ETB-2ko "Mundo Abierto" ko** Guatemalari buruzko erreportaia grabatu bazenuen dei egin mesedez 79 45 80 tfnora, irudi horiek eskuratzen interesatuta nago eta. Jon Iñaki.
- **GAC motorra salgai prezio interesgarrian.** Dei egin 79 39 52 edo 79 15 20 tfnoetara.
- **Hiru urtetako katu eme siamesa erregalatzeko gertu nago** ondo zainduko duen norbaiti. Dei egin goiz, bazkalordu edo afalondoetan 79 53 82 tfnora.

**Aste Gazte**

**Animazio Sozio-Kulturala**

• Udan Estatu Batuetan monitore aritzeko deialdia. Baldintzak: 18 urtetik gorakoa izatea, gazte-taldeekin esperientzia, ingeles maila ona. Izena emateko epea: urtarrilak 15.

**Bekak**

• LHI edo REM ikasten ari direnentzako garraio-bekak. Ikastetxe eta etxebizitzaren arteko distantziak,

gutxienez, 4kmtakoa izan behar du. Epea: urriak 30.

• Caja de Madrid Fundazioak 115 ikerketa-beka deitu ditu, honako arlo hauetan: Ingurugiroa, Finantz Sistema eta Humanitateak. Karrerako azken ikasturteko ikasleentzat nahiz doktorego proiektuetarako. Epea: urriak 30.

**Ikastaroak**

• Alboka ikastaroak Arrasaten. Larunbat goizez.

Azarotik maiatzera. Matrikula: 2.000 PTA. Plaza mugatuak.

**Lehiaketak**

• Indalezio Ojanguren V. Argazki-Lehiaketa. Gai libre. Zuribeltzean nahiz koloretan. Sariak: 75.000 eta 10.000 PTA bitarteko 7 sari. Epea: urriak 23.

• Enpresak Eratzeko Ideien VII. Gazte-Lehiaketa. 18-30 urte bitarteko gazteei zuzendua. Sariak: 800.000 eta 300.000 PTA bitarteko 5 sari egitasmo onenentzako. Epea: urriak 30.

**Gogoratzen naiz nola Franco-ren garaian soldakuskari uko egiteko asmoa azaldu nion aitari: luze mintzatu ondoren, haren eritzia nagusitu zitzaidan eta joan egin nintzen. Baina ezten hura bihotzean sartuta geratu zitzaidan, une hartan zuzen jokatu ez banu bezala, bai baina ez...**

JOAN MARI IRIGOIEN

**Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65**

BERTSOAK

LANGILEEN MARTXA

1

Euskal Herriko labe garaiek jasandako garai latza, pultso makala ageri zaio hurbil dauka azken hatsa. Baba ederrak orpotan hartuz Madrilerainoko martxa, hango indarrak ba ote leiken hemengo gainbera altxa.

2


Hemendik hara abiatu da langilearen zoria, lurreen zoru gogorra eta zerutik behera euria. Idea hori ez da berria hemen gose, han gloria, lehengo kanta zaharra ikusi: "geuria da ta geuria".

ION IÑAKI IZARZELAIA



ZER NAHIAGO?

Angel Diaz  
Kalegarbitzailea




- **Erdiko kaleak ala auzokoak garbitzea?** Ez dago aukeraterik. Garbitzaile bakoitzari kale bat jartzen digute.
- **Eskuz ala makinarekin garbitzen da hobeto?** Makinarekin askoz ere azkarrago behintzat.
- **Jaietan asko zikintzen da?** Bai, zikindu baino gehiago, zabortegia ematen du batzutan.
- **Eta astebukaeretan?** Asko igartzen da.
- **Zer da txarrena lurretik kentzeko?** Txikilea, bertan pegatua geratzen da eta.
- **Eskuetan kailurik egin dizu eskobak?** Bai, batzuk badituz, bai. Jendeak uste duen baino gehiago.
- **Lan neketsua da?** Txarrena eguna kalean pasatzatu behar izaten da.
- **Zenbat ordu sartzen dituzu egunero?** Sei eta erdi, baina larunbatetan ere egiten dugu lan.
- **Enpresa barruan lagun asko dituzu?** Ondo konpontzen gara denok.
- **Etxean pasatzen duzu eskoba?** Emaztea ez dagoenean bakarrik.
- **Askok irabazten duzu?** Ez, oso gutxi.
- **Modernoa ala klasikoa zara?** Gaur egungo bitzta jarraitzen dut.
- **Zenbat urte dituzu?** 50.
- **Jainkoarengan sinisten duzu?** Beti sinistu izan dut.
- **Hobby bat?** Partidatxo bat bota eta etxean telebista ikustea.
- **Gustora jaten duzun janaria?** Gustatu asko, baina erregimenean nago.
- **Letxe txarra daukazu?** Ez, guztiz kontrakoa, beti umore oneko egoten naiz.
- **Pipak gustatzen?** Ez, oso gutxitan jan ditut.
- **Ze telebista kate ikusten duzu gehien?** Askok eta ia beti pelikulak.
- **Gurutzegramak egitea gustatzen zaizu?** Gaixo egon nintzenean bakarrik egin nituen.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN  
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



BEROGAILU  
ETA GAS  
INSTALAZIOAK

CLIGAS

Garro Jenerala, 2-1 ez. Tfnoa: 77 00 77 ARRASATE  
Romualdo Galdos, 22. P-13. Tfnoa: 11 40 64 EIBAR  
Particular de Ategorrieta, 2 etxabea. Tfnoa: 27 39 20 DONOSTIA

# Karmelo Uribarren 'Naturaltasuna argazkietan'

Pasa den ostiralean banatu ziren Belaunaldi Gaztea argazki lehiaketako sariak; Karmelok laugarren saria eskuratu zuen, lehen arrasatearra izan zen.

— Zer esan nahi du zuretzat sari hori irabazteak?

— Poz handia ematen du, gainera igarri egiten dudalako denborarekin hobetuz noala. Eta batez ere oso inportantea da errebelatua, segun nola egiten den, argazkia aldatu egin daiteke. Horrez gain, erabilitako materialak ere badu bere eragina. Eta estiloa ere nabarrian geratzen da. Nik zuri beltzeko argazkiak lantzen ditut. Bestalde, gauzak ondo egiten ikasteko, ordu asko sartu behar dira eta ni behintzat lortu dudanarekin pozik nago.

— Zenbat lehiaketetan hartu duzu parte?

— Herri mailan askotan aurkeztu ditut nire argazkiak: jaietan izaten diren rallyetan, AEDko beste lehiaketa batzutan, haratuzteetan... eta herritik kanpo, Eskoriatzan oporren ostean izan zen lehiaketan ere parte hartu nuen eta lehen saria irabazi nuen. Zumarragan ere aurkeztu nituen lanak



behin, baina ez nuen ezer irabazi.

— Belaunaldi Gaztea lehiaketaren maila zelakoa izan da?

— Ona, eta gainera kanpoko jende asko ikusi da eta beharbada horrek ere ematen dio garrantzi berezia. Arrasateko beste bik bakarrik aurkeztu ditugu lanak eta maila nahiko ona izan da. Nire ustez lan onak eta txarrak egon dira baina batzuk oso onak izan dira, beharbada nireak baino hobekak.

— Ze argazki mota aurkeztu duzu lehiaketa honetara?

— Hiru aurkeztu ditut: Gizon baten eta gazte baten argazkia, Irlandan eginikoa; zaldi bat bere moxalekin, Landan eginikoa eta hirugarrena

Araba Euskaraz-en eginikoa, gazte batzuk insumisioaren alde.

— Paisaiak ala erretratuak?

— Niri paisaiak asko gustatzen zaizkit. Orain "Argazki hila" deitzen dena ere egin dut. Orokorrean niri naturalitatea erakustea gustatzen zait.

— Estudioko argazkiak?

— Montaiak eta antzerakoak ez zaizkit asko gustatzen. Hala ere, batzutan oso gauza onak egiten dira eta hori ere esatekoa da. Adibidez, lehiaketa hau irabazi duenarenak, estudioko argazkiak direla esango nuke eta onak dira.

— Filtroak?

— Ez ditut erabiltzen baina beharbada hasiko naiz erabiltzen. Zuri beltzean, laruak kontrasteak azpimarratzen dituelako eta gauza argienak askoz ere gehiago ikusten direlako. Eta diapositibetan ere filtroek asko laguntzen dute, segun ze efektu lortu nahi duzun.

— Flasha?

— Egia esan ez dut asko erabiltzen. Praktika asko behar da flasha ondo erabiltzeko eta momentuz ez naiz oso ondo konponetzen flasharekin. Beraz, ez dut asko erabiltzen.

## LABURRAK

### ◆ AEDko Literatur eta Itzulpen lehiaketa-rako azken egunak

AEDk antolatzen dituen "Arrasate 92" literatur lehiaketa eta "lokin Zaitegi VI. Itzulpen sariketa"n lanak aurkezteko epea azaroaren 6n bukatuko da. Literatur lehiaketan hiru maila desberdinduko dira: ipuiná, poesia eta bertso papera eta era berean heldu eta gazteentzat ere bereiztuko dira modalitate desberdinak. Bestalde lokin Zaitegiren lehiaketan "V. Mendeurrena, Amerikaren aurkikuntza" izango da gaia. Lehiaketara edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak aurkez daitezke. Bietan epaimahaia AED Elkarteak izendatutako zenbait adituk osatuko dute. Azaroaren 6a baino lehen bidali beharko dira lanak AED Elkartera.

### ◆ Literatur Tailerrak

Bergarako Jardun elkarteak literatur tailerrak antolatu ditu. Idaztea gustatu edo idazteko era hobetu nahi dutenentzat egongo da zuzenduta. Mikel Hernandez Abaitua izango da irakasle eta matrikulak 4.000 pezeta balioko du. Martxoan bukatuko dira klaseak.

### ◆ Alboka ikastaroa


Udaleko Gazte Zerbitzuak larunbat goizetan burutuko den alboka ikastaroa antolatu du. Azaroan hasiko da eta maiatzean bukatu. Matrikula 2.000 pezetakoa izango da eta plazak mugatuak izango dira. Informazio gehiago lortzeko edo izena emateko, Gazte Zerbitzuan.

**ARRASATE  
PRESS**

**HARPIDETZAK**



**77 05 65**



**ERAIKUNTZAK**

Olarte, 30 etxabea.  
Tfnoa: 79 77 11  
Faxa: 79 77 11  
ARRASATE  
Postakutxa: 118

**LAURA**

**GAZTE MODA**

Erdiko kale, 30  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 57 20




## TRUKOAK

**Korapiloa egin, sokaren puntak askatu gabe**

60 zentimetrotako soka behar da. Soka mahai gainean utzi eta besoak kurutzatatu, mezatan bezala. Besoak kurutzatuta, esku batekin hartu sokaren punta bat eta bestearekin bestea. Behin soka harrapatu eta gero, besoak jarri normal baina soka askatu gabe, korapiloa eginda dagoeneko.

**Arraultzak orekan**

Saiatu arraultza bat zutirik jartzen; zaila, ezta? ba badago modu bat tente tente jartzeko. Jarri aurretik, hartu arraultza eta ondo astindu. Gero egin aproba, berehala lortuko da lehen lortu ezin zen oreka.

**Hiru txanponekin**


Jarri hiru txanpon mahai gainean eta esan norbaiti erdikoa kentzeko, baina ikutu barik. Soluzioa erraza da, alboetako bat hartu eta pasa beste aldera, horrela lehen erdian zegoena, dagoeneko ez da erdikoa.

## Argazki lehiaketan bertakoak baino kanpokoak gehiago

“Belaunaldi Gaztea” argazki-lehiaketaren sari-banaketa egin zen joan den ostiralean. 32 partaidek lehiaketara aurkeztu zituzten 74 lanen artean, epaimahaiaik Fermin Etxeberria zarautzarraren “Pensamientos” lanari eman zion lehen saria; bigarren saria eta bigarren urtez, Mario Turegano madrildararren “Caballo negro” lanarentzat izan zen; hirugarrena Gasteizeko Gorka Lopezen “Jovenes de cristal” lanak eraman zuen, eta laugarrena Karmelo Uribarren arrasatearrari eman zitzaion, “Gazteen askatasuna” lanarengatik. Lehen saria 60.000 PTAKoa zen, bigarrena 40.000koa, hirugarrena 30.000koa eta laugarrena 20.000koa.

Aurtengo lehiaketara bi arrasatear baino ez dira aurkeztu, beste sei euskaldun eta gainontzekoak kanpotarrak, tartean alemaniar bat. Partaidetzari dagokionez, esan behar iazkoaren antzerakoa izan dela, arrasatearren partaidetza txikia deigarria izan delarik. Sari gehienak gizonetzkoek eraman dituzte, baina emakumezkoen partaidetza zabalagoa izan da.

Epaimahaia Epelde arga-



Fermin Etxebarriaren, ‘Pensamientos’.

zki-dendak, Juan Jose Uriarte “Bermi” ASako partaideak, Isabel Gallastegi Gazteria Batzordeburuak, Jon Salaberri ASako partaideak eta Jaione Lasanta argazkigintzako adituak osatu dute.

Lehiaketan parte hartu duten 74 argazkiak, deskalifikatutako 17ak barne, igan-

dera arte ikusgai izango dira Monterronen. Erakusketaren ordutegia: goizez 12etatik 2etara eta arratsaldez 6etatik 8etara. Behin erakusketa bukatu eta gero, partaide bakoitzak bere argazkia eskatu egin beharko du, bestela jasotzen ez diren guztiak Udalaren esku geratuko dira.

Araba Etor., 4  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 01 32



Olakua, 14  
OÑATI  
Tfnoa: 71 60 00

ALEMANA FRANTSESA INGELESA

Maila guztiak. Umeak, gazteak, helduak. Goizez eta arratsaldez.

**ZATOZ GURE BULEGOETARA!**

(Goizeko 9etatik 1etara eta arratsaldeko 4etatik 8etara)



**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPAETAPINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

· AIPUA ·

*"Ikusten duzunaren erdia bakarrik sinistu eta entzuten duzunik ezer ere ez".*

*Dinah Craik*

· JEROGLIFIKOA ·



**Euskal Herriko biztanlegoa:**  
1.500.000 pertsona...

· GURUTZEGRAMA ·

1	2	3	4	5	6	7	
8							
9			10				11
12							
13			14				
15		16		17			
18							

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Gorde. 8. Emakume izeneko kalea. 9. (Ald.) EE-BBko saskibaloitxapelketa. 10. Garbi. 12. Komak. 13. Txepel. 14. Omen. 15. Hamar bider ehun. 17. Zango atal. 18. Seigarren hilebetea.

**Bertikalak** 1. Andre. 2. Irekirik. 3. Purtxileria. 4. Alde hemendik. 5. Zut. 6. Eraspena. 7. Umezain. 11. Ogia egiten duena. 16. Atsekabea adierazteko hasperena.

· HOROSKOPOA ·

**Aries** Pertsona horrengatik jan gabe? Txuleta on batek animatuko zaitu!

**Taurus** Bihotzean arantza bat bazenu bezala sentituko zara, poliki atera.

**Gemini** Sukaldaritza ikasi beharko duzu, bestela gosez hilko zara.

**Cancer** Mendira bazoaz, eraman kantinplora.

**Leo** Ez begiratu gora, txoriak kaka egin diezazuke aurpegira.

**Virgo** Sua dagoela? besteren baten bihotzean seguruen.

**Libra** Kontuz fraka zuriekin, zikindu egingo zaizkizu.


**Scorpio** Zuloa poltsikoan? etxean gelditu, edo lagunak galduko dituzu.

**Sagitaris** Bainuan hanka sartu aurretik, begiratu xaboirik dagoen edo ez.

**Capricorn** Begi urdindunari kasurik ez, kalte besterik ez dizu egingo.

**Aquarius** Pailazoarena egitekotan zirkoan hobeto.

**Piscis** Horrela jarraitu eta laster jarriko dizute logela Santa Agedan.



**Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...**

Markulete Industrialdea, 20. pabiloia  
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95  
**ARRASATE**

· ELENA GOIRIZELAIAREN GOMENDIOA ·



San Juan batzuetan bisitatu zuen lekua gomendatu nahi digu Elenak, Ansoko "Magoria" Ostatu bejetarianoa. Magoriak mailukia esan nahi du, eta etxe hartako tratua eta giroa halakoxea ei da, mailukia bezain goxoa. Baserri itxurako kale-etxea da, "etxean bezala sentitzeko lekua". Inguruan zer egin daitekeen? Zuriza, Hecho eta Hiru Erregen Mahaia hurbil daude, eta bizikletak eraman ezkerro, ibilaldi politik egin daitezke. Prezioz ere ez da garestia.



**17 Larunbata**  
4.00 Bai horixe! Follow me.  
6.30 Pareak jokuan.  
19 ATBketan.

**18 Igandea**  
9.10 Mondragol.

**19 Astelehena**  
1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Bai horixe! Follow me.  
6.30 Dokumentala.  
8.8.30, 9 Berriak.  
9.30 Mondra Sport.  
10 Asteko zinea: Firefox.


**20 Asteartea**  
1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Bai horixe! Follow me.  
6.30 Dokumentala  
8.8.30, 9 Berriak.  
9.30 Larrugorritan: Nagusi egitean.  
10 Asteko zinea: Firefox.

**21 Asteazkena**  
1.30 Eguerdiko Berriak  
1.35 Bai horixe! Follow me.  
6.30 Dokumentala  
8.8.30, 9 Berriak.  
9.30 Pareak jokuan.  
10 Asteko zinea: Firefox.

**22 Osteguna**  
1.30 Eguerdiko Berriak  
8.8.30, 9 Berriak.  
9.30 ATBketan.  
10 Asteko zinea: Firefox.

**23 Ostirala**  
1.30 Eguerdiko Berriak  
8.8.30, 9 Berriak.  
9.20 Monterrock.  
10 Asteko zinea: Firefox.

· KOMIKIA ·



· SOLUZIOAK ·

**JEROGIFIKOA**  
Bider bi.  
7. Tara. 11. Okina. 16. Ai  
3. Kinkila. 4. Ur. 5. Tente. 6. Anexioa.  
**Bertikalak** 1. Emakume. 2. Zabalh.  
Ekaina.  
13. Uii. 14. Ei. 15. Milla. 17. Om. 18.  
tena. 9. ABN. 10. Neto. 12. Kakotxak.  
**Horizontalak** 1. Ezkutu. 8. Mai-  
**GURUTZEGRAMA**

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

**MARENAZA**

Bizkai, 1 ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 08 07

Elektroinjekzio  
Zerbitzua

**LUCAS**

**ARRASATE KONPONKETAK**

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41  
ARRASATE

**NAROKI**  
Urrezko bitxiak

**NAROKI**  
Opariak, Jostailuak, Liburuak,  
Paperdegia  
Erdiko kale, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 47

famili eta  
gizarte-  
heziketarako  
zentruak

1992-93

## ikasturterako egitaraua

**Arratsaldez, 3.30tik 6.30etara**

- Artisautzako tailerra
- Patroigintza industrialala eta joskintza
- Psikologia (garapen pertsonala)
- Sukaldaritza eta postregintza
- Puntua eta gakorratza
- Analisi transakzionala
- Lore eta landareen zainketa

**Arratsaldez, 6.30etatik aurrera**

- Marrazketa eta pintura
- Sukaldaritza eta postregintza
- Tapizak eta makramea
- Analisi transakzionala
- Psikologia (gurasoen eskola)
- Patroigintza industrialala eta joskintza

**Hitzaldiak, bisita kulturalak...**

**EMAKUMEA ETA LAN-BILAKERA  
IKASTAROAK**

Informazio gehiagotarako hurbil zaitez Santa Teresa 12ra  
edo dei egin 79 04 59 tfnora(Arratsaldez)